


TOKIKOM

2022ko urtarrila | 221. zenbakia

aita!

txo karia



Hamid Ben Daoud

Errekorra maratoian

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  **4** Iritziak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **12** Gurean izan da... Itxaro Borda, idazlea
-  **14** Gaztea eta... Koro Rey, Z. Politikoen ikaslea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz
-  **20** Hamid Ben Daoud, atleta
-  **24** Zu argazkilari
-  **26** Txorierritarak munduan... Saudi Arabia
-  **28** Berbalagun
-  **30** 22. Korrika
-  **32** Emaus... Gabon solidarioak
-  **33** Herbarioa... Erromeroa
-  **34** Teknologia... Wordle eta Berbaxerka
-  **35** Aikorrizketa... Mendiak salgai Txorierrin
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Itxaro Borda, idazlea



26 Txorierritarak munduan, Saudi Arabia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Miren Basaras, Gaizka Peñafiel, Iñaki Olabarrieta, Jose
Angel Mentxaka, Joanes Camara eta Txiribita

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Hizkuntza klasikoak

Birusa, antigeno, antigorputza, patogenoa, genoma.... Hainbat hitz entzun izan ditugu azken urte bi hauetan; batzuk ezagunak, beste asko ezezagunak. Azken hilabeteetan alfabeto grekoa ere modan jarri da eta ia bere letra guztiak ezagutzen hasi gara: Alfa, Beta, Gamma, Delta, Omicron,... Aurreko hitz horiek guztiek amankomuna dutena da bere jatorria antzinakoa dela, hizkuntza klasiko batetik eratorriak, grekotik edo latinetik. Garai batean, bi hizkuntza horiek batxilergo mailetan ikasten ziren; gaur egun, aldiz, ikasketetatik desagertu egin dira eta gazte askok ez dakite zer diren ere edo hizkuntza horiek noizbait existitu ote diren.

Baina bi hizkuntza horiek zientzian asko erabiltzen dira, edo, behintzat, erretatik eratorritako hitzak. Alfabeto grekoa, esate baterako, matematikan poligono baten angeluak izendatzeko edo fisikan erradiazio mota ezberdinak adie-

razteko erabiltzen da: alfa, beta, gamma. Edo egun koronabirus berriaren aldaerak izendatzeko.

Biologiako hainbat hitz esaterakoan badakigu zer esan nahi duten eurek duten jatorriagatik eta hitz osaketagatik. Horrela, birus hitza latinezko pozoi hitzetik dator, zerbait kaltegarria dela adieraziz; antigeno hitzak grekoko anti aurrekia du eta gen hitza, bere esanahia kontrakoa sortzen duena izanik. Eta horrela hainbat hitz eta termino.

Medikuntzan ere hainbat gaixotasunen izenak latinezko edo grekozko jatorria dute: hepatitis (hepat-, gibel eta -itis, inflamazioa), pneumonia (pneumon-, birika eta -ia, ezaugarria). Zientziaren arlo ezberdinek ere horrelako jatorria dute: mikrobiologia (mikro-, txikia, bio-, bizitza eta -logia, ikasketa), oftalmologia (ophthalmo-, begia eta -logia, ikasketa),

Zientziaren hainbat alorretako adibide horiek eta beste askok adierazten du-



MIREN BASARAS
Mikrobiologian doktorea

te bi hizkuntza klasiko hauek jakintzaren eta gure kulturaren esentzian bertan daudela. Ezagutza etimologikoa, hau da, jatorria, erakustea komenigarria litzateke, horrek hiztegi zientifikoa ondo ulertzea, gogoraztea eta ondo erabiltzea erraztuko lukeelako. Azken finean, hitz zerrenda amaigabe bat buruz ikastea inolako loturarik gabe askoz ere zailagoa baita, hitzen esanahia lehenago zuten esanahitik ondorioztatu baino. Zientzia bat ikastea bere terminologia ondo ulertzea baita.

Osasun mentala erdigunera ekarri behar dugu behingoan. Izan ere, estatistikek diote izugarri igo dela laguntza behar dutenen kopurua. Antsietatea, depresioa, suizidioa... bistratzen ez den beste pandemia bat eta osasun publikoak ganoraz heldu nahi ez diona. Gai deserosoa izan arren, tabu bilakatuz ez dugu sekula bideratuko.

Ekaitz Goikoetxeak Huntzaren azken diskoan idatzi bezala: "...erantzun bila joan baitzara, galderak hemen utzita...". Horiek datozkit burura, honezkero atzera-bueltarik ez dutenak. Inguruan hutsune hori bizi izan dugunok hamaika aldiz nekatu dugu burua ekidin zezaken

Arrakalak



GAIZKA PEÑAFIEL
Irakaslea

pentsatuz... baina hain da konplexua. Bada zerbait bereziki kezkatzen nauena: EAEn erabaki hori hartu dutenen artean lautik hiru gizonezkoak dira. Gizon naizen heinean, badakit gizarteak ezarri digun sistema eragilearen kontra doala publikoki emozioez hitz egitea, zaurgarri agertzea, laguntza eskatzea. Barne lan-keta eta ausardia eskatzen du, baina geroz eta gehiago gara maskulinitate zaharkituaren fatxada hori deuseztatu nahian gabiltzanok.

2022a izan dadila denok honetaz zabal berba egiten dugun urtea; argi-ilunak elkarbanatuz, arrakalak era naturalean azaleratuz.



Izena eman daiteke Zamudioko krosean

Beste Bira Loiu atletismo taldeak abenduan jakinarazi zuenez, otsailaren 13an eskola-krosa, familientzako lasterketa eta herri-krosa izango dira Zamudion. Lasterketen zehetasunak www.zamudioko-krosa-2022.webnode.es webgunean kontsultatu daitezke, eta herri-krosean izena ematea ere webgune horretan egin daiteke.

Zamudioko Udalak krosa egiteko lekua utzi du: Bidekoetxe parkea. Familientzako lasterketa (200m) 10:40ean hasiko da eta ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretik izena ematea. Gainera, parte-hartzaileen kopuruaren arabera baliteke lasterketa

bi egitea. Eskola-krosa 11:00etan hasiko da eta kategoria hauek izango dira: benjaminak (700 m; neskak, 11:00etan, eta mutilak, 11:15ean); kimuak (1.500 m; neskak, 11:30ean, eta mutilak, 11:50ean); eta umeak/kadeteak (2.100 m; neskak, 12:10ean, eta mutilak, 12:30ean). Azkenik, herri-krosa (4.000 m) 12:55ean hasiko da eta beharrezkoa izango da aldeztu aurretik izena ematea. Izena emateak hiru euro balio du eta ordainketa dortsala hartzen denean egingo da. Sariak banatuko dira parte-hartzaileen artean eta zozketak egingo dira.



Maiatzaren 4ra arte gastatu ahal dira bonuak Zamudion

Zamudioko Udalak gizarte-sareetan jakinarazi moduan, gaurtik eta maiatzaren 4ra arte gastatu ahal izango dira abenduan ateratako ostalaritza- eta merkataritza-bonuak. Bonu bakoitza 20 euroan erosi da eta benetako balioa 35 eurokoa da. "Bonuak Herritar Txartelean kargatu dira, hura baita trukatzeko tresna", adierazi dute.



Barandak ipini dira Herriko Plazaren inguruan, Derion

Derioko Udalak jakinarazi du zortzi baranda ipini dituztela Herriko Plazaren inguruan, "etxe orratz" moduan ezaguna den eraikinaren inguruko horretan, adineko pertsonei edo mugikortasun urria dutenei handik igo eta jaistea errazteko eta erorikoak murrizteko. Esandakoaren arabera, 7.629 euroko inbertsioa egin dute barandak ipintzeko.



Gure ikasleen ahotan

"Dual ereduari esker, badakit zer den benetan enpresa bat eta nola funtzionatzen duen"

Leire Urquiza (Bilbo, 19 urte) Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza -myGADE- graduako bigarren maila ikasten ari da.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak, baduzu zaletasunik?

Escolapios Ikastetxean egon nintzen Bigarren Hezkuntza amaitu arte. Lehenengo Babxilergoa Estatu Batuetan egin nuen, Floridako Winter Haven herrian. Bilbora bueltatu nintzenean, Botikazari instituturara joan nintzen han klaseak euskaraz zein ingelesez dizelako. Nire zaletasunak nahiko ohikoak dira: lagunekin eta familiarekin denbora pasatzea, hondartzara joatea, musika entzutea eta bidaiatzea.

Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Nik betidanik nahiko argi izan dut ADE edo horrelako karrera bat ikasiko nuela. Ate irekietara joan nintzen eta orduan erabaki nuen myGADE egitea. Nik nahi nuen guztia eskaintzen zuten: bidatzeko aukera, Dual esperientzia, klase praktikoa. Hasieran, ez nengoen oso ziur Mondragon Unibertsitatearen metodologia gustatuko zitzaidan ala ez. Talde lana garrantzitsua da eta nik ez nuen esperientzia handirik talde lanetan. Orain esan dezaket izan dela erabakirik onetako bat.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso positiboa izan da. Klaseak oso praktikoa dira. Irakasleekiko harremana ere azpimarratuko nuke. Bi irakasle daude gelan, laguntzeko prest, eta horrek klaseak errazagoak egiten ditu.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasketen metodologia?

Berria. Aurreko ikastetxeetan beti izan da teoria eta praktikakoa lana, alde praktikoa oso denbora gutxi eskaintzen zitzaion. Hemen, guztiz kontrakoa da. Talde lan asko dago eta klaseak oso praktikoa dira.



Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaiuna?

Talde lana. Ikasitakoak praktikan ipintzeko aukera oso ona da. Gainera, ez zaude bakarrik, zure taldekideak dituzu zuri laguntzeko eta lana aurrera eramateko. Oso giro ona dago klasean.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari esker, badakit zer den benetan enpresa bat eta nola funtzionatzen duen?

Euskaltel enpresan ari naiz, Marketin departamentuan. Nire zeregin nagusiak dira zerbitzu hornitzaileekin kontaktuan egotea, katalogoko prezioak hilaibetero eguneratzea, webgunea hobetzeko proposamenak egitea eta beste operadore batzuk ikertzea.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual ereduari esker, badakit zer den benetan enpresa bat eta nola funtzionatzen duen?

Euskaltel enpresan ari naiz, Marketin departamentuan. Nire zeregin nagusiak dira zerbitzu hornitzaileekin kontaktuan egotea, katalogoko prezioak hilaibetero eguneratzea, webgunea hobetzeko proposamenak egitea eta beste operadore batzuk ikertzea.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Horri esker badakit zer den benetan enpresa bat, nola funtzionatzen duen, nolakoak diren lan-harremanak... Gainera, gauza berriak egiten ikasten ari naiz. Askotan gertatzen da klasean ikasitako gauzak lanean erabiltzen ditudala ikustea.

Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango duzu?

Covid dela eta ezin izan dugu nazioarteko esperientziarik egin. Hurrengo urtean hilaibete oso bat emango dugu atzerrian eta azken kurtsoan sei hilaibete. Gogo handia dut.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Karrera amaitu ostean, master bat egitea gustatuko litzaidake. Oraindik ez daukat argi zer master, baina atzerrian egin nahi dut.

Euskal Herriko Itzulia, Zamudion

Euskal Herriko Itzulia apirilaren 4tik 9ra bitartean izango da aurten. Egun bakoitzeko irteera eta helmuga jakinarazi dituzte antolatzaileek. Hala, apirilaren 4an Hondarribitik aterako da eta, Nafarroatik eta Arabatik igaro ostean, Zamudiora ailegatuko da laugarren egunean, apirilak 7. Hurrengo egunean, Zamudiotik bertatik irten eta Mallabira abiatuko da. Euskal Herriko Itzulia Arrateko gainean amaituko da.



Aste Santuko kanpamentuak Loiu

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, apirilaren 11tik 15era arte Aste Santuko kanpamentuak izango dira udalerrian. Udaren amaieran eta Gabonetan antolatutako kanpamentuen arrakasta ikusita, udalak erabaki du kanpamentuak Aste Santuan ere egitea, horrela herritarrei familia eta lana uztartzen lagundu ahal izateko. Kanpamentuen gaia txirindularitza izango da eta laster informazio gehiago jakinaraziko dute.

Lokal berria Lezaman, ikastaroak egiteko

Lezamako Udalak gizarte-sareen bidez jakinarazi duenez, lokal berria atondu da bertan pintura-ikastaroa eta altzairuak zaharbertze ikastaroa egiteko. Lokala frontoiko lehenengo solairuan dago eta lanetan 45.051,80 euro ipini dira; Eusko Jaurlaritzak 23.996,78 euroko dirulaguntza eman du.



Boxeo-ekitaldia antolatu da Zamudion martxoaren 12rako

a: Mikhail Nilov (www.pexels.com)

Zamudio Box Inbox boxeo elkarteak jakinarazi duenez, boxeo ekitaldia antolatu dute martxoaren 12rako. Ekitaldia 19:30ean izango da Zamudioko kiroldegian, eta orotara zortzi borrokaldi egingo dira; datozen asteetan esango dute boxeolariak nortzuk izango diren. Ia bi urte pasatu dira pandemia hasi zenetik, eta martxokoa izango da elkarteak denbora-tarte horretan an-

tolatzen duen lehen boxeo-ekitaldia. Hortaz, oso gogotsu dabilta ekitaldiaren xehetasunak prestatzen.

Gainera, elkarteak 10. urteurrena ospatuko du aurten eta, esan moduan, urtean zehar, ahal dela, boxeo-ekitaldi gehiago egiteko asmoa dute. Martxoko ekitaldiari dagokionez, Zamudioko gimnasioan 350 lagun batu ahal izango dira eta sarrerak gimnasio parte-hartzaileetan zein txarteldegian bertan eskuratu ahal izango dira.

TABERNA GAZTE
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Plé-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Construcciones-Reformas IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializatea:
Xalfla-lanak
Zoruak
944522910 - 665703312 - 652772016

Udal-aplikazio berria Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak li-neako plataforma berria ipini du martxan: Larrabetzu Zabaltzen. Horren helburua da udal-gaietan herritarren parte-hartzea erraztea, bide berriak erabilia Udalarekin elkarlanean ibili daitezen.

Bestalde, plataformak telefono mugikorrerako aplikazioa eta "kalezaindu" atala ere baditu. "Doako tresna horren bidez, Udalariku modu arinean eta eraginkorrean jakinarazi ahal zaio zer-bait matxuratu, kal-tetu edo apurtu den. Horretarako, bai or-denagailua, bai tele-fono mugikorra erabil daitezke, behin apli-kazioa deskargatuta. Gainera, udal-oharrak hala nahi duten per-sona guztiengana helduko dira orain, mugikorrerarako Larrabetzu Zabaltzen app-ren bidez. Erraza izango da: aplikazioa mugikorrera jaitzita, udalaren oharrak jasotzen hasiko da, hainbat gairi buruz, hala nola errepide-mozketak, autobus-zer-bitzuetako aldaketak eta kultura arloko albisteak".

Gazteak kontratatzeko laguntzak

Lehen Aukera programaren baitan, Lanbidek dirulaguntza ematen du langabezian dauden gazteak kontratatzeko. Praktikaldiko kontratuak izan daitezke, edo mugagabeak. Praktikaldiko lan-kontratu bakoitzeko 8.480 eurora arteko dirulaguntza jaso daiteke, eta lan-kontratu mugagabe bakoitzeko, 13.970 eurora artekoa. Eskariak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Informazio gehiagorako EGAZ Txorierri jo daiteke: egaz@txorierri.eu eta 944 536 370.

Gabonetako zuhaitzak berriro landatu dira Derion

Derioko Udalak jakinarazitakoaren arabera, udal-eraikinetan izan diren Gabonetako zuhaitzak berriro landatu dituzte leku hauetan: Larrabarri ibilbidean, Bestorrene bidean, Uribe parkean, Landa kalean, Goiri kalean eta Errementeiriñe kalean. Guztira 12 zuhaitz landatu dituzte: gorosti bat, bi ereinotz, bi hagin, bi izei, 2 araukaria, bi leylandia spirales eta zedro bat. Bestalde, Derioko Udalak adierazi du otsailen 80 landare eta zuhaitz landatuko dituztela hainbat gunetan. Horretara 6.000 euro bideratuko dituzte.

TURREGOITI
JATETXEA
Laurgoeta etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitik.com

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntz:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

elekma
URRIKATZEAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BURRUMI
TELEBETAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXAKAK
Izoharanga motak • Preziarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Teorikari etorbidea, 25-3.N. • 48180 Leku
T: 944 599 232
www.elekma.es

Txiriboa kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75
BIDE-GORRI
Askotanko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Carrefour
express
ORDUTEGIA
Asteleneetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30
Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Larrabetzuk bat egin du Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin



2015eko irailean, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten Nazio Batuek. Hura da pertsonen, planetaren, oparotasunaren eta bake unitbertsalaren aldeko ekintza-plana eta garapen iraunkorrerako 17 helburu ditu. 2030 Agendarekiko konpromiso argia adierazi duten euskal erakundearen artean Larrabetzuko Udala dago. Horrela, abenduko osoko bilkuran onartu zuten, agendari eta bere oinarri eta garapen iraunkorrerako helburuei jarraituko diete, datozen urteetako udal politika egiteko.

"Herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa izanda, udalak giltzarri gara prozesu honetan eta mundu-estrategia tokiko eremura eramateko eginkizunean. Udalerrri bakoitzak hausnarketa egin behar du 2030 Agendak

eskaintzen dizkion aukerei buruz, eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) tokiko errealitatara egokitu", azaldu dute. "Larrabetzuko Udala prozesu hori lantzen dabil, gure plan lokalak, orokorrak eta sektorialak GJHen ikuspegitik aztertuz, bidearen zein puntutan gauden egiaztatuz eta Larrabetzu 2030 Estrategia definitzeko gako horretan lan eginez, hurrengo hamarkadarako gure gobernanta-eredua definituko duen ibilbide-orri gisa".

Garapen Jasangarriko 17 helburuei beste helburu bat gehitu zaie Euskadin: hizkuntza- eta kultura-aniztasuna. "Eguno testuinguruak ezartzen dizkigun lehen-tasunetan jartzen dugu arreta, ikusmira 2030. urtean jarritz, baina gaur egungo momentutik jardunez". Adierazi duten moduan, "estatuei ez ezik administrazio publikoaren eskala guztiei ere dagokie,

baita enpresa pribatuei eta hirugarren sektore sozialeko erakundeei ere. Honek testuinguru berria eta komuna eskaintzen digu, non eragile guztiok hizkuntza bera hitz egin dezakegun, eta akordioak eta aliantzak sustatu, helburuak indartzeko eta lortzeko".

Hortaz, Larrabetzuko Udalak GJHak lortzen lagunduko du, besteak beste "Larrabetzu leku segurua, osasungarria, inklusiboa, erresilientea eta iraunkorra bihurtuz; aukera-berdintasuna eta kultura-aniztasuna sustatuz eta eremu guztietan pobrezia eta desberdintasunak murriztuz; enplegu duina bultzatuz eta tokiko merkataritza, ekoizpena eta turismo iraunkorra bultzatuz; prozesu jasangarrietan oinarritutako garapen ekonomikoa sustatuz eta bizitzaren etapa guztietara iraunkortasunerako hezkuntza bideratuz; 2030 Agendak COVID-19aren agertokian behar bezala berreskuratzeko eskaintzen dizkigun aukeretan oinarrituta; koherentzia, efizientzia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bermatzen dituen gobernanta-eredua 2030 Tokiko Agendari emanez; eta GJHak lortzeko aliantzak ezartzeko dugun zeregina indartuz".

Azaldutakoaren arabera, abenduko osoko bilkuran Larrabetzuko Udalak konpromisoa hartu zuen 2030 Agendarekin eta GJHekin bat egiteko. Horri lotuta, tokiko estrategia garatuko du GJHak betetzea bultzatzeko; udalerrriaren baliabideen eta aurrekontuen arabera, baliabide teknikoak, ekonomikoak eta antolakuntzari lotutakoak ezarriko ditu udal politika edo plana bermatze aldera; txosten publiko baten bidez aldizka emango du herriaren egoeraren eta bilakaeraren berri, GJHei dagokienez; herritarrek 2030erako ibilbide-orrian parte hartzea erraztuko du; eta efektu biderkatzailea bultzatzen duten beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin aliantzak sustatuko ditu GJHak lortzeko".

RPS: 18.010

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Bizikletak konpontzeko gunea ipini dute Lezaman

a: Lezamako Udala

Bizikletak konpontzeko eta manten-tze-lanak egiteko gunea ipini da Leza-man, Hilario Astorki plazan hain zuzen ere. Horrela, eta azaldu dutenez, "mugikortasun jasangarriaren aldeko apustuari eusten" jarraitzen dute. Jokin Batiz kirol zinegotziaren esanetan, "2017an inauguratu zen bizikletak garbitzeko gu-nearekin batera, azpiegitura berriari esker, herriko eta inguruko herrietako zaleek zerbitzu integrala izango dute bizikletak egoera onean mantentzeko".

Gunea edo BiziPuntoa margo urdin- ez seinalatzatuta dago eta, argibide gra-fikoez gainera, hurrengo tresna hauek ditu: bihurkinak, giltza ingelesa, giltza finkoak, allen giltzak, pneumatikoak puz-

teko eskuzko sistema eta bizikleta fin-katzeko besoak. Gainera, QR kode bat erabilita, tutorialak kontsultatzeko aukera dago.

Gunea Bizkaiko Foru Aldundiak aton-du du. Lezamako Udalak esan duenez, erakunde biak elkarlanean aritu dira, udalaren asmoa izan baita herritarren eta zehazki Zorribike elkartearen eskaerei erantzutea. "Alde batetik, lezamarren pro-posamenak eta nahiak gauzatzen jarraitu nahi ditugu, eta bestetik, mugikortasun iraunkorra eta kirola egitea sustatu", aipatu du Jon Ander Aurrekoetxea al-kateak. "Txirrindularitza-kultura handia du Lezamak eta oso pozik gaude he-rritarrei zein gure herritik egunero bi-zikletaz pasatzen direnei erraztasunak emateaz".



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Unai Calvar da urtarilleko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Centro Dental Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Derio

Udalak jakinarazi duenez, azken urteetako handiena da. Guztira 10.121.117 euroko aurrekontua da, aurreko ekitaldikoa baino % 19 handiagoa (1,62 milioi). Esther Apraiz Derioko alkatearen esanetan, "udalerraren hazkundera eta zerbitzu publikoen hobekuntzari jarraitzea emateko aurrekontuak dira. Pertsona zaurgarriekin konprometitutako proiektua da, tokiko jardura ekonomikoa dinamizatzen jarraitzeko". Era berean, Apraizek azpimarratu du ehun herritarrek baino gehiagok hartu dutela parte aurrekontuetan.

Inbertsioak nabarmen igo dira, orotara 783.500 euro. Besteak beste, hauek egingo dira: argiteria publikoa LED teknologiarantz hobetzea (50.000 euro), bide publikoetan mantentze-lanak egitea (38.000 euro), DUK eta Kultur Etxeko eraikinean hobekuntzak egitea (120.000 euro), eta haurrentzako jolas berriak erostea (30.000 euro). Gainera, partaidetza-prozesutik ateratako bi proiektu sartu dira aurrekontuetan: Uribe Parkean nerabeentzako aisialdia eta kirola uztartzeko jolasgune berria eraikitzea eta Ganben kirol anitzeko pista berria egitea (140.000 euro orotara). Azkenik, Udala aurtengo proiektu hauek martxan jarri nahi ditu: komun publikoa Uribe parkean, kiroldegia ondoko futbol-pistak estaltzea (580.000 euro), tren-geltokiaren inguruko sarbideen ur-



Udalen aurrekontuak

Urtarrileko aldizkaria ixtean, Deriok, Larrabetzuk, Lezamak eta Sondikak aurtengo ekitaldirako onartu dituzten aurrekontuen berri izan dugu; Loiuak azaroan jakinarazi zuen aurtengo diru-partida: ia bost milioi euro. Hurrengo lerroetan batu dira aurrekontuen ildo nagusiak.

banizaioa (85.000 euro), Tabernabarriko sarbidearen eta Mungiako tren zaharraren bide berdeko konexioaren hobetzea (180.000 euro), 2023 Bizikleta Planeko ZAParen 1. Fasea, San Miguel Plaza berritzea eta Uribe Parkeko Txakurgunea hobetzea.

Larrabetzu

Udalaren esanetan, aurreko urtearekin alderatuta, Aldundiaren diru-sarrerak nabarmen hobetuko dira, "eta, urte eta erdiko atzerapena dagoela, legealdiko planean genituen helburuei eutsi ahalko diegu. Era berean, udal-tasak eta -zergak erregulartzeko ekarriko du diru-sarrerak pixka bat handitzea. Guzak horrela, 3.470.052 euroko diru-sarrerak aurreikusi dituzte 2022rako. Gastuei dagokienez, "% 19 langileen gastuei lotuta dago; % 17, Mankomunitateak kudeatzen dituen zerbitzuei; % 6, herriko taldeentzako dirulaguntzei; eta % 29 finakoak dira. Hortaz, "% 27 gelditzen zaigu inbertsioetarako eta proiektuetarako, eta % 2 maileguak ordaintzeko".

Udalaren esanetan, udal-kudeaketaren oinarriak dira herritarren parte-hartzea, gardentasuna eta tokiko taldeen inplikazioa. "Guztionez aukera-berdintasuna sustatzen duen herria nahi dugu. Gure apustuak dira gazteak, herri-kultura, sormena babestea eta memoria historikoa berreskuratzen jarraitzea"



Lezama

Lezamako Udalak 3.130.364 euroko aurrekontuak onartu ditu 2022rako. COVID-19ak sortutako pandemiak aurrekontuak baldintzatu arren, Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatearen esanetan, "udalak jarraituko du funtsezko udal-zerbitzuak bermatzen, talde ahulenentzat banaketa zuzena eta babes berezikoa izan dadin". Udalkutxaren ekarpena % 23,8 handituko da, eta diru-sarrerak, oro har, % 18,37.

Lezamarrek 2017, 2018 eta 2019ko partaidetza-aurrekontuetan proposatutako proiektuak egingo ditu udalak. "Emandako hitza bete behar dugu. Gure bizilagunek beren proposamenak helarazi zizkiguten eta horiek errealitate bihurtu nahi ditugu". Gobernu-taldeak 120.000 euro erabiliko ditu *pumptrack* pista berri bat sortzeko, eta beste 145.000 euro, Euskaldun Berria plazan, udaletxearen atzean, dagoen haur-jolaserako gunea estaltzeko. Bestalde, 40.000 euro inbertituko ditu kiroldegiko futbol 5 zelaiko belar artifiziala ordezkatzeko; 190.000 euro, udaletxeko bulegoak eraberritzeko; 125.000 euro, Kristo Santuko ermitako estalkia eta fatxada birgaitzeko; eta 72.000 euro, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria (HAPO) idazteko Plan horren kostua 242.000 eurokoa izango da 2025era arte.

Diru-laguntzei dagokienez, gobernu-taldeak udalerriko elkarte-sarea sustatzen jarraituko du, eta guztira 100.300 euro bideratuko ditu herriko elkarteei laguntzera; izan ere, "Lezamako egunero-kotasunean funtsezko eginkizuna dute, gure herriari bizia emanez". Gainera, 62.000 euro bideratuko ditu hainbat kontutara, hala nola beharrianak dituzten familiei laguntzera, kultura-lehiaketak antolatuz, Txorierriko beste udalerri batzuetako kiroldegietan abonatuta daudenentzako laguntzetara eta herriko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduetan kontsumoa sustatzera.

Azkenik, "urtero bezala, Lezamako Udalak diru-ekarpena egingo dio Txorierriko Mankomunitateari, hainbat zerbitzu mantendu ahal izateko eta, bestalde, izaera sozialeko proiektuak gauzatzen jarraitzeko".



Sondika

Sondikako Udalaren osoko bilkurak 2022ko aurrekontuak onartu zituen abenduan. Orotara, 6.203.716 euroko aurrekontuak onartu dituzte aurtengo ekitaldirako. Udal aldizkarian azaldu duten moduan, Sondikako Udalak 300.000 euro bideratuko ditu herriko zein eraikin publikoetako argiak hobetzera eta haien ordezkari LED argiak ipintzera. Gainera, 5.000 euro ipiniko ditu zuhaitzak landatzeko eta kontzientziazio-ekintzak egiteko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ibilgailu elektrikoak erosteko prozesuarekin bat egin du, pixkanaka ibilgailu-flota berrituz joateko.

Beste aldetik, diru-partida bat zuzenduko da Gorondagane eskolako instalazioak eta ingurua hobetzera: LED argiak ipiniko dira, jolasteko gune berriak atondu, aparkalekuak aldatu, eta seinale gehiago jarri. Patioaren estalkia dagokionez, udalak adierazi du Eusko Jaurlaritzari eman diola hura eraikitzeke lizentzia. Era berean, 75 urtetik gorakoen etxeetan ke-detekttagailua ipintzeko asmoa du Sondikako Udalak, eta, bestalde, 120.000 euro gehiago bideratuko ditu lorezaintza-zerbitzua hobetzera. Kultura- eta kirol-elkarteei laguntzera 65.000 euro zuzenduko ditu, % 44 gehiago, eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari egiten dion diru-ekarpena handituko du.

“Nobela beltzaren bidez hobeki ezagutzen dugu gizartea”

t: Itxaso Marina Ondarroa

Kostatu zitzaizun Ezpeldoi jubilatzeako erabakia hartzea?

Sei nobelatan erabili dudan pertsonaia da. Bide, ikerketa eta abentura asko zituen eginik eta iruditu zait, langile guztiek bezala, erretiratzeko ordua merezi zuela. Ziklo bat ixteko modua ere bada, Ezpeldoi 30 urtez nire begiak eta belarriak izan delako, baita batzuetan nire izpiritua ere.

Euskal Herria asko aldatu da 30 urtean, politikoki, ekonomikoki, kulturaliki...; eta liburuetan hainbat gai jorratu dituzu, hala nola ekologismoa eta antimilitarismoa. Errealitatea ulertze-ko modua da literatura?

Errealitatea islatzeko, agertzeko eta memorizatzeko modua da. Nobela beltzak ahalmen handia du, nobela arruntak ez duena, eta gure jendartearen txorik ilunenetara joaten da pertsonaia edo polizia edo narratzailea. Iruditzen zait nobela beltzaren bidez hobeki ezagutzen dugula gure gizartea, euskalduna zein, esaterako, eskandinaviarra edo amerikarra. Eta Ezpeldoik bide hori egin du. Egia da Euskal Herria asko aldatu dela 30 urtean eta oraindik badugu aldaketa horren bilakaera asko ezagutzeko. ETak bake-adierazpena egin eta handik 10 urtera idatzi dut nobela hau; nire ustez, oraindik ez dakigu gure lekua non den eta egoera deskribatzen dut nobelan.

Ardura berezia duzu jende arruntaren bizipenak literaturara eraman eta ikusgai egiteko.

Bai, nire pertsonaia asko dira langile arruntak, langabetuak, laborariak, emazteak, lesbianak... Adin guztietako pertsonaiak dira. Nire helburuetako bat da euskal literaturaren kutsu burges horretatik atera eta erakustea gurean hainbat eta hainbat jendarte-mota ere badirela.

Lehen poema 15 urte zenituela eman zenuen argitara eta harrezkero oso ibilbide oparoa izan duzu: poesia eta eleberria landu duzu, saiakera, antzerkigintza, narrazioa... Komunikat-



ITXARO BORDA | idazlea

Baionako idazleak *Euri zitalari esker* liburua aurkeztu zuen urtarrilean Larrabetzun, *Literaturaz Berbetan* egitasmoaren baitan. Liburu horretako orrialdeetara Amaia Ezpeldoi detektibearen azken abentura eraman du.

bideetarako ere idatzi duzu eta itzulpengintzan ibilia zara. Zein pisu du literaturak zure bizitzan?

Handia. Literatura nire bizitza ardazten duen zerbait da; ez dut nire bizitza literatura barik kontzebitzen. Dena egiten dut, dena irakurri... Nire eguneroko ogia da.

Literatura-lana eta ogibidea uztartu dituzu, erretiroa hartu arte postari ibili zara eta.

Oso zaila da literaturatik bizi izatea, garai batean orain baino zailagoa. Eta, askok bezala, askotan musu-truk idatzi dut. Egia da egoera azken urteetan aldatu dela, baina ez bizitza hortik ateratzeko

“Nire helburuetako bat da erakustea gurean hainbat eta hainbat jendarte-mota direla”

“Gustura irakurtzen ditut emakume gazteek idazten dituztenak; beste ikusmolde bat ekartzen dute”

gisa. Gainera, Iparraldekoa naiz eta neurri batean literatura minorizatu batekoa naiz Euskal Herri globalaren mailan; beste hizkuntza batean idatzi banu, behar bada... Baina hori ez dago nire ideietan. Gero, postaren ofizioa nire libertatearen ikurra ere izan da. Biak uztartu ditut... Orain ikusten dut denbora asko behar izan dudala, baina beti izan naiz harian. Idatzi dut eta kito.

Emakumea zara, Iparraldekoa, eta euskaraz idazten duzu. Nola markatu zaituzte hiru ezaugarri horiek?

Arras markatu naute. Maria Merce Marçalek esaten zuenez, hiru horiei esker hirualdiz ere behar izan naiz. Hastapenetik, ni naizenetik eta lekutik idatzi dut: Iparraldetik, emakumetasunetik, ene lesbiana-izaeratik. Horiek nire idazkuntza baldintzatu dute eta betidanik ere sartu naute halako periferia literario batean; zentrotik urrun banintz bezala. Hori izan da nik nire buruari asignatu diodan lekua, baina besteek ere leku hori asignatu didate. Beraz, hortik idazten dut, periferia anitz horretatik. Hala ere, emakumetasunak ez luke periferia izan beharko, populazioaren erdia emakumezkoek osatuta baitago.

Emakumezko idazleen kopurua nabarmen handitu da zu hasi zinenetik.

Egiazko iraultza izan dela uste dut, bai gure literaturan, bai munduko beste leku askotako literaturan. Liburutegi batera joaten bazara, ikusten duzu bi liburutako bat emakume batek idatzia dela. Nik beti jarraitzen diot literaturaren arlo horri eta gustura irakurtzen ditut emakume gazteek idazten dituztenak, Iparraldean zein Hegoaldean. Beste ikusmolde bat ekartzen dutela uste dut, bai emaztetasunari buruz, feminismoaren sarea sartzan baita, bai orokorrean euskal gizarteari buruz. Nabardura bat: plano simbolikoan, euskal idazlea beti gizona izan da, edonori hiru idazle esatea eskatu, eta hirurak gizonetzkoak izango dira.

Hori aldatzeko bidean gabilta?

Oraindik bide luzea dugu aurretik: mentalitateak aldatu behar dira. Baina eskolan-eta beste ikusmolde bat ematen bazaie, belaunaldi gazteek irudipen hori aldatzea gerta daiteke.

Euskalkiek leku berezia dute zure literaturan.

Euskalkiak erabiltzen ditut. Gainera, nik euskalki bat ikasi dut nire bizitzan: zuberotarra. Eta Ezpeldoiren saioan bat

asmatu dut: zuberotarraren eta bizkaieraren artekoa –ez duguna ere asmatu behar (kar-kar)–. Euskalkiak euskara dira; halako dikotomia bat egiten dugu euskalkien eta batuaren artean, baina euskara baturik ez dago euskalkien funtsik gabe eta horregatik dira garrantzitsuak. Gainera, literaturan joko anitz zilegitzen ditu euskalkien presentziak.

Ezpeldoik erretiroa hartuta, beste pertsonaiaren bat ager daiteke?

Momentu honetan ez dut beste pertsonaiarik. Bi ipuin idatzi ditut *Maiatz* aldizkarirako eta ez dago pertsonaia nagusirik; taldea dira. Polifonia lantzea maite dut eta hura landu dut ipuin horietan: lehen pertsonatik urruntzen naiz.

Oparoa

Baiona, 1959. Nekazaritzan ikasketak ditu eta Historian lizentziaduna da. Oso gaztea zela hasi zen idazten eta ibilbide oparoa egin du. *Maiatz* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen 80ko hamarkadan eta poesia, narrazioa, eleberria, antzerkigintza eta itzulpengintza jorratu ditu. Ezpeldoik detektibea bere pertsonaiarik ospetsuena da, baina obra asko ditu idatzita lehen esandako generoetan. Haien artean, % 100 basque (Susa) aipatu daiteke, 2002an Euskadi saria jaso zuela.

GO!AZEN 8.0



DATA BERRIA!
OTSAILAK 12
(Zapata)

Bi emanaldi:

17:00etan

eta

19:00etan

**Zamudioko
kiroldegian**



SARRERAK SALGAI!

Zamudion, Liburutegian

Derion, Txapas tabernan

Larrabetzun, Foteri tabernan

**Online, zamudio.eus
urtarrilaren 21etik aurrera**

**Erreserbak Whatsapp bidez,
629 424 645 telefono zenbakian**

PREZIOA: 15 euro

Babeslea:  **Zamudio**



zamudion euskeraz?
hoba ez!

“Nire inguruaren errealitatea aldatu nahi dut”

KORO REY AGUADO | Zientzia Politikoen ikaslea

Hogeita bat urteko sondikoztarrak azterketak amaitu berri ditu eta oso ondo irten zaizkiola esan digu. Hainbat lan-aukera ditu politologo moduan, esaterako, ikertzaile politiko gisa inkestak egiten, politika-aholkulari moduan, udaletxe edo enpresa pribatu batean, merkatu-ikerketak egiten...; hala ere, argi du politikan aritu nahi duela, herritarren arazoez kezkatuta dago eta.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Ikasturte honetan hasi zara Zientzia Politikoa ikasten, zergatik?

Marketin goi-gradua egin nuen, ez nuelako oso argi zer egin, baina konturatu nintzen benetan Zientzia Politikoa ikasi nahi nituela. Hainbat arrazoiengatik: gure iritzia ematen dugunean, gazteoi esaten digutelako ez dakigula ezer; lagun batzuek Derioko Kultur Birikara joan behar dutelako ikastera, hango ikasgelaren ordutegia askoz luzeagoa da eta; nire adineko gazteek ez dugulako herriko jaietan parte hartzen... Arrazoiak batuz joan nintzen eta nire buruari hau esan nion: “Hori guztia aldatu behar duzu”. Nire inguruaren errealitatea aldatu nahi dut.

Politikan ibiltzea gustatuko litzazuke, beraz.

Bai, eta, ahal dela, etxean bertan, Sondikako udaletxean lan egin nahiko nuke, ingurua aldatu nahi badut herritik hasi beharko dudalako, ezta? (kar-kar). Esaterako, Iztartza inguruko plaza behingoz konpondu dezatela dut helburu: arazoak izan ziren eraikuntza-enpresarekin eta lanak ez dira behar moduan bukatu; ondorioz, euria egiten duenean garajeak hartzen ditu urak, eta plazan ere pertsona batzuk erori dira edo erortzeaz egon dira... Behin bideoa grabatu eta gizarte-sareetara igo nuen, herritarrek ikusteko garajea nola zegoen. Udalak ur-ponpa ipini zuen ura kentzeko, baina, bueno, arazoak hor jarraitzen du... Udal- eta estatu-politika interesatzen zaizkit, niregan eragin zuzena dute eta.

Hitz egin apur bat ikasketei buruz.



Lau urteko karrera den arren, Zientzia Politikoak eta Soziologia gradu bikoitza egiteko aukera dago (sei urte) eta hori hain zuzen da nire helburua; hortaz, ahaleginduko naiz ikasturte honetan ahalik eta notarik hoberena ateratzen, ea gradu bikoitzean sartzerik dudana. Lehen ikasturtean batez ere teoria ikasten gabiltza, askotarikoa: ekonomia, konstituzioa, soziologia... Gaurkotasuna jorratzen dugu eta oso interesgarria da. Gainera, oso harreman ona dut ikaskideekin eta horrek ere animatzen nau aurrera ateratzera. Ahal badut, gustatuko litzaidake hirugarren mailan Erasmus programan parte hartu eta Italiara edo Greziara joatea. Azken batean, ikuspegi zabala izan behar dut beste herri batzuetan gertatzen denari buruz eta beste pertsona batzuen ideologia eta kultura ezagutzeko aukera izango nuke.

Zer pentsatzen duzu gaur egungo politikariei buruz?

Nire ustez, berdinak dira guztiak eta bereizten dituen bakarra ideologia da. Ez dute herritarrengan pentsatzen: eztabaidatzen dutenean –hori eztabaidatzea bada, jakina–, bakarrik boterea dute hel-

buru; bakarrik esaten dute “zu okerragoa zara”. Guztiak langabezira bidali beharko genituzke, eta, ideologia alde batera utzita, haien ordezkari ikuspegi eta iritzi zabalak dituzten pertsonak ipini. Bakarrik dirua nahi dute eta gehiegi irabazten dute. Ikaskideen artean asko eztabaidatzen dugu politikarien portaerari buruz, kafetegian. Bakoitzak bere ideologia duen arren, gus-tatzen zaigu eta zenbait gairen inguruan ados ipini gara batzuetan.

Zelan dabilta pandemia kudeatzen, zure ustez?

Egoera zein den kontuan hartuta, uste dut Espainiako gobernua nahiko ondo dabilela hura kudeatzen: ezin dugu beste alderdi batzuekin konparatu, azken horiei ez zaielako tokatu pandemia-garaian gobernatzea. Eusko Jaurlaritza, bestalde, ahaleginetan dabil, baina ez du lortzen. Esaterako, seigarren olatua izango zela argi zegoen abenduko zubitik, baina ia Urtezahar-gauaren bezpera arte itxaron dute neurriak zorrozteko, ostalariak eurei begira zutela. Beste aldetik, nire iritziz, pandemiari buruz hitz egiteko, politikariek orokorrean protagonismo handiagoa

eman beharko geniekeen medikuei eta zientzialariei, azken horiek direlako adituak eta badakitelako zertaz ari diren. Politika alde batera gelditu beharko zatekeen, eta zientziari utzi hitz egiten.

Politikan asko hitz egiten da kunktariari buruz.

Bai. Horri buruzko eztabaidak ere baditugu ikaskideen artean... Adibidez, Pablo Iglesiasek Irene Montero entxufatu duela... Izan daiteke, baina, egia esan, Irene Montero oso lan ona egiten dabil.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso positiboa naiz eta uste dut nahi dudana lortuko dudala, izan ere, beti oso burugogorra izan naiz. Eta helburu handia dut, Europako Parlamentuan ibiltzea gustatuko litzaidakeelako. Horri dagokionez, pentsatu dut gradu bikoitza egin ondoren nazioarteko harremanei lotutako zerbait ikastea, esate baterako, master bat. Bestalde, ikaskideei bururatu zaigu alderdi politiko berria sortzea (kar-kar). Hainbat ideologiatako lagunok osatuko genuke, azken batean elkar ulertu beste erremediorik ez dugu, herritarren onurarako lan egin nahi badugu.

“Ikuspegi zabala izan behar dut beste herri batzuetan gertatzen denari buruz”

“Gaur egungo politikarien ordezkari ikuspegi eta iritzi zabalak dituztenak ipini beharko genituzke”

“Elkar ulertu beste erremediorik ez dugu, herritarren onurarako lan egin nahi badugu”



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lantegi Heziketa eta Bageen Irakasgaitasun Institutua

Unitateko Baxia Kalea, 1
48160 - DERIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

EUSKO JAURLARITZA
IKASLEAREN GARAPEN
ETA ASPIRATUTURA DIRA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esperuen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

40 urte, milaka txori

Abenduaren 27an, Osoko Bilkurak hiru aurrekontu onartu zituen: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearena, Txorierriko Udal Euskaltegiarena eta Behargintza Txorierrri SL merkataritza-sozietatearena. Une honetan Txorierrin dauden beharizanak kontuan hartuta, aurrekontuen bitartez helburu hauek bultzatu nahi dira, hainbat arlotan:

1.- Udalerrri bakoitzeko berdintasun-planaren ebaluazioa eta diagnostikoa egitea, eta udal-eremuetan genero-ikuspegia txertatzeko lan egitea.

2.- Enplegu eta Gazteria Plana mantentzea. Enplegua sustatzen jarraitzea zeharkako ikuspegi global batetik, preskakuntza, enplegua eta emantzipazioa bultzatzeko programak eginez.

3.- Euskararen ikaskuntza eta bereziki erabilera bultzatzen jarraitzea. Horretarako, 50.000 euroko igoera izango du aurrekontuak, besteak beste Euskaraldiaren hirugarren edizioa antolatzeko, Txorierriko merkataritza eta ostalaritza arloan bertako salerosketak bultzatzeaz

2022ko aurrekontuak, premiei erantzuteko

2022KO AURREKONTUA		
Mankomunitatea	8.496.134,61 euro	% 2,77ko igoera
Udal Euskaltegia	780.556,95 euro	% 5,30eko igoera
Behargintza Txorierrri	881.607,98 euro	% 7,17ko jaitsiera

gain euskararen erabilera sustatzeko, eta Txorierrin egin den hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren azterketa egiteko eta horren ondorioak herritarrei zabaltzeko.

4.- Lehen mailako gizarte-laguntza indartzea, eta horretarako etxeko laguntza-zerbitzua 73.000 euro handituz.

5.- Ordainsarien eta plantillaren igoeraren aurreikuspenak eragindako langile-gastuen gehikuntzari aurre egitea.

6.- Udal Euskaltegirako egoitza berria egiteko pausuak ematea eta Mankomunitatearen egoitza handitzen jarraitzea.

Puntu horiez gain, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak aurreko urteetan arrakasta izan duten programekin jarraituko du eta egitasmo berriak abiatuko ditu.

Guroteko finalean Txorierriko bikoteak

Abenduaren 20an, Bilboko Azkuna zentroan, Guroteko taldeko txapelketan parte hartu zuten Bizkaiko hirukote finalistak elkartu ziren, besteak beste, eta euren artean lehiatzen aritu ziren hainbat probari aurre eginez. Oihan Vega izan zen saioaren aurkezle eta dinamizatzailea eta bertan egon zirenek arratsalde ederra pasatu zuten! Guztira Txorierriko 27 taldek hartu dute parte edizio honetan eta horietatik bi izan dira Txorierriko saria lortu dutenak: Iker Arciniega, Aritz Elorrieta

eta Unai Arrate alde batetik eta Hodei Bartolome, Oier Herraiz eta Peru Cristobal bestetik. Irabazleek tablet bana jaso zuten arratsalde horretan, Derioko Esther Apraiz alkatearen eskutik.

Horretaz gain, Bizkaiko 3. saria ere (Txorierriko dendetan gastatzeko 50 euroko hiru bono) Txorierriko beste talde batek eskuratu zuen: Eider Artiñano, Maialen Monasterio eta June Herraizek, hain zuzen.

Zorionak guztiei eta jarraitu Gurot programan jolasten eta ondo pasatzen!!!





Laneratze programa arrakastatsua: “Txorierriko enplegua 3R”



Egaz Txorierri, tokiko enplegu-ekimen bat gauzatzen ari da, gogobetetze-maila handiarekin. Ekimen hori Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailak finantzatzen du, eta luzaroko langabeei, 45 urtetik gorakoei, emakumeei, bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri eta gazteei zuzenduta dago.

“TXORIERRIKO ENPLEGUA 3R” izeneko programa 2021eko apirilean hasi zen garatzen, eta 2022ko martxoaren 30era arte bertan parte hartzen duten erabiltzaileek eskuragarri dauden baliabide guztiak jasoko dituzte gure profesionalen eskutik, berriro ere lan munduan txertatu daitezten.

Laguntza integraleko programa bat da, Bizkaiko enpresetan enplegua lortzeko benetako aukerak sortzen ahalegintzen dena, lau lerro zuzenen bidez, hala nola langabeak berrorientatzea, aktibatzea, laneratzea eta birkualifikatzea.

Orain arte 92 pertsonak parte hartu dute egindako ekintzetan, eta 1.800 orientazio- eta prestakuntza-ordu baino gehiago egin dira. Horrek esan nahi du ia

% 86ko betetze-maila izan dela guztira, eta nabarmen gainditu dela Aldundiak ezarritako % 15eko laneratze-helburua (zehazki, % 46koa), 43 pertsona laneratu baitira.

Nabarmenezkoa da inguruko enpresek betetzen duten zeregina; izan ere, enpresa horiek ezartzen dituzte euren lantaldeak sortzeko behar dituzten lanbide-profilak.

Hori lortzeko, lan-aukerak aztertu eta antzemateko egindako lanari esker, pertsonak euren gaitasunak garatu eta trebetasunak indartzen dituzte, merkatuan aurkituko dituzten benetako beharren arabera.

Marka pertsonal ona izatea eta transmititzen jakitea funtsezkoa da enpresa batek kontratatzeko puntu-puntu dagoen talentua balora dezan. Berrorientazioaren helburua da pertsonen lan-elkarrizketa arrakastaz gainditzeko tresnak eskaintzea.

Laguntza eta aholkularitza indibidualizatuaz gain lan-aktibazioko talde-tailerak eta gaitasun digitalei buruzko prestakuntza ere eskaintzen dira.

2022ko lehen hiru hileroan, hala nahi duten pertsona guztiak Egaz Txorierri hurbildu ahal izango dira informazioa jasotzera.

Animatu zaitetz eta parte hartu!

#InfoTxorierri

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatzen dituen ekintzen inguruko informazioa jaso nahi duzu WhatsApp bidez?

 **94 454 01 65**

Bidali ALTA hitza eta zabalkunde zerrendan sartuko zara



t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Aspalditik dago Euskal Herrian mendietatik ibiltzeko ohitura, tontorretara igotzeko, bidez bide ibiltzeko... Esaten da pandemia geroztik ohitura hori areagotu egin dela, jende gehiago dabilela, gabiltzala, mendiko bideetatik hara eta hona. Gure herrietan badago nondik ibili, eta poztekoa da.

Mendiz mendi ibiltzeko era asko dago: oinez, korrika, bizikletaz, perretxiko bila... Bakoitzak bere gustuko era, edo erak, aukeratzen ditu. Gu ez gara nor inori esateko nola disfrutatu naturaz, baina bai proposatzeko: ibili bidez bide, baina ibili patxadaz.

Eta zer esan gura dugu patxadaz ibiltze horrekin? Ez dugu astiro esan nahi, bakoitzak bere erritmoa du, baina bai begiak zabalik, gauzak begiratzuz, gelditu behar denean gelditu, aztertu behar dena aztertu, ikusi beharrekoak ikusi.

Eta badago zer ikusi? Jakina. Hasi pasaietatik, natura bera, zuhaitzak, errekek, ur-jauziak... eta gizakiak mendez mende utzitako arrastoak. Batzuk milaka urte dituztenak, beste batzuk ez hainbeste, baina merezi dute geldiune bat eta azterketa minimo bat. Sarritan, informazio faltagatik, interes faltagatik, bazterrean uzten ditugu kasu gehiegirik egin barik.

Merezi dute begirada bat, euren gainean informatzea: gure historiaren parte dira, askotan garrantzitsuak. Eta zertaz ari gara? Zer aurkitu ahal dugu? Hona hemen zerrenda posible bat: karobiak (karea egiteko erabiltzen zirenak), elurzuloak (udan izotza eduki ahal izateko), ikaztegiak (bertan txondorra egin eta ikatza atera), monumentu megalitikoak (hilen erritualekin zer ikusia zutenak), galtzadak (oraingo bide

Menditik patxadaz



a: Iñaki Olabarrieta





sarearen aitzindariak), basakortak (abe-
reak mendian batzeko guneak), kiri-
kinoak (gaztainak batzeko lekuak), er-
mitak (era askotakoak), erromanikoa,
erromaniko aurreko leihoak (kapitulu
aparte merezi dutenak), gazteluak, do-
rretxeak, gotorlekuak (defentsarako erai-
kiak, batzuk kristo aurrekoak, besteak
karlisten garaikoak), olak edota errotak
(lehenago burdina ateratzeko eta gero
garia edo artoa ehotzeko), haize errotak,
bunkerrak (zoritxarrez Txorierrri inguratuta
dago), erretabloak (batzuk historikoak eta
ederrak), trenbide zaharrak, eguzki er-
lojuak, armarriak, garaixek (horreoak),
loberak (otsoak harrapatzeko eraikuntzak)
eta abar.

AIKOR! aldizkariko hurrengo zenbakie-
tan saiatuko gara horietako bakoitza az-
tertzen. Zer ziren, zertarako erabiltzen ziren
eta Txorierrin, posiblea bada, edo inguruan
ibilaldi bat edo gehiago proposatuko dugu
haiek ikusi eta gozatu ahal izateko. Beraz
ondo ibili, patxadaz, eta gozatu mendiaz.

t: Gaizka Eguzkitza

Zelan hasi zinen kirola egiten?

Txikitan, Marokon, futboleko jokatzeko nuen eskolako taldean. Korrika egiten nuen bakarrik ardien eta gameluen atzetik (kar-kar). Hona etorri nintzenean, jarraitu nuen futboleko jokatzeko eta Zabaloetxeko entrenatzaile batek, Hassan Reddadek, atletismoa egiteko proposamena egin zidan. Lehenengo lasterketa lurretan egin nuen 2017an. Kadete mailakoa nintzen, baina nagusiekin egin genuen korrika. Gogoratzen dut futbol-janzkera neramala (kar, kar). Lasterketa erritmo bizian hasi nuen eta jendeak uste zuen laster egingo nuela leher, baina mailari eutsi nion eta lasterketa irabazi egin nuen.

Eta handik aurrera, korrika egiten jarraitu zenuen...

Bai, hasiera batean, tarte txikiko lasterketak, 100 metrokoak-eta. Baina apurka-apurka tarte handitu nuen: krossak, 800 metrokoak, 3.000, 5.000, 10.000... Txikitatik gauza berriak probatzea gustatu zait. Eta horixe egin dut lasterketekin. 2017an apendizera kentzeko ebakuntza egin zidaten eta, ia entrenatu bari, maratoni erdia korrika egitera joan nintzen Santanderrera. Marka ederra egin nuen eta erabaki nuen erresistentzia-lasterketetan lehiari sartzea.

Bost urte pasatu dira Santanderreko lasterketa horretatik. Bolada honetan bilakaera ederra izan duzu...

Bai, urterik urte hobetu dut marka: 2017an, 2:12ko marka egin nuen Valentzian; 2018an, 2:10koa, Valentzian; 2019an, 2:08koa, Pragan; eta 2020an, 2:07koa Sevillan eta Valentzian. Azkenean, 2021eko abenduan, Valentzian, 2:06:35eko marka egin nuen eta Ayad Lamdassem atletak zuen maratoni Espainiako errekorra berdindu nuen. Tokioko Joko Olinpikoetarako gutxieneko marka ere lortu nuen, baina azkenean ez nintzen hara joan.

Zer esangura du zuretzat Estatuko markarik onena berdindu izanak?

Oso pozik nago. Urte batzuk eman ditut helburuaren atzetik eta azkenean lortu egin dut. 2019an, Pragako maratoni, lehenengo kilometroetan oso marka ona ateratu nuen, baina azkenean ezin izan nion erritmoari eutsi eta izan izan nuen errekorra lortu. 2020an ere saiatu nintzen Valentzian, baina haize-minarekin

"Ez diot nire buruari mugarik jartzen"

HAMID BEN DAOUD | Espainiako errekorra du maratoni

Estatuko maratoni errekorra Lezaman bizida, Athleticeko egoitzan. 14 urte zituela, Hamid Ben Daoud marokiarrak erabaki zuen bizimodua etxetik kanpo ateratu behar zuela eta Euskal Herrira heldu zen. Ibilbide gorabeheratsua izan du eta gaur egun atletismoaren izar gaztea da. Bere ametsa dominaren bat Joko Olinpikoetan irabaztea da.

"Entrenamenduak funtsezkoak dira. Eta nik oso gogor entrenatzen dut helburuak lortzeko"

"Tokioko Joko Olinpikoetarako gutxieneko marka lortu nuen, baina azkenean ez nintzen hara joan"

"Pertsona moduan eta atleta moduan hazi nahi dut, gorputza heltzen dena arte"

ibili nintzen eta bertan ere ezin izan nuen helburua lortu. Beraz, 2021ean errekorra gainditu nahi nuen eta zorionez, lortu egin nuen. Lasterketa Valentzian izan zen eta, nahiz eta baldintzak (haize gehiegi zegoen) oso onak ez izan, lortu nuen xedea.

Irakurrita daukat helburua zapate-tan idatzi omen zenuela...

Bai, (kar-kar). RE (*Record de España*) hizkiak idatzi nituen zapate-tan nire burua motibatzeko. Lasterketaren aurkezpenean, kazetariak horren inguruan galdetu zidaten eta nik ez nuen errekorra aipatu nahi izan; beraz, txantxetan esan nien neska-lagunaren izenaren hasierako hizkiak zirela. Guztiek egin zuten barre eta, lasterketa bukatu zenean, egia jakin zuten. Anekdotak bat baino ez da. Hizkiak ez dira garrantzitsuak; entrenamenduak, ordea, funtsezkoak dira. Eta nik oso gogor entrenatzen dut helburuak lortzeko.

Zer idatziko duzu orain zure zapate-tan? Zeintzuk dira zure helburuak datozen hilabeteotan?

MO (*Medalla de Oro*) idatzi beharko dut (kar-kar). Ez dakit, ez dakit zer egingo dugun. Aurten hainbat txapelketa ditugu: Europakoa (abuztuan), Mundukoa (uztailean)... Oraindik ez dakit zer egingo dugun. Erabakia ez dago bakarrik nire esku; entrenatzaileak eta hautatzaileak ere badute zer esan.

Zer lortzea gustatuko litzaizuke? Zein da zure ametsa?

Ez diot nire buruari mugarik jartzen. Gero eta hobeto egin nahi dut: gero eta marka hobeak, gero eta errendimendu altuagoa... Pertsona moduan eta atleta moduan hazi nahi dut, gogor entrenatu, gorputza heltzen dena arte. Argi dago Joko Olinpikoak garrantzitsuak direla eta domina lortzea edozein atletaren ametsa



*"Zergatik ez dut Pariseko
Joko Olinpikoetan
dominaren bat irabaziko?
Maratoian edozein
gauza gerta daiteke"*

*"Afrikarrok onak gara
erresistentzia handiko
lasterketetan beharra
dugulako, sufritzeko
gaitasuna dugulako"*

dela. Hurrengo Jokoak 2024an egingo dira Parisen eta zergatik ez dut bertan dominaren bat irabaziko? Maratoian edozein gauza gerta daiteke. Lasterketa oso azkarra bada, agian ez dut aukera handirik izango, baina geldoagoa bada, zergatik ez? Baikorra naiz.

Afrikarrak askotan nagusitzen zarete maratoietan eta tarte handiko lasterketetan. Zergatik zarete hain onak erresistentzia handiko lasterketetan?

Nire ustez, beharra da gakoa. Maratoia oso gogorra da, hainbat kilometro egin behar ditugulako. Hortaz, benetako beharrik ez baduzu, zergatik emango dituzu orduak eta orduak kilometroak eta kilometroak korrika egiten? Horretarako, burua zein gorputza entrenatu behar dira, eta saioak oso gogorrak dira, luze-luzeak. Sufritzeko eta zama handia aguantatzeko gaitasun ikaragarria izan behar duzu. Basamortuko gameluek bezala (kar-kar). Behar izanez gero, gizakiok edozein gauza egiteko gai gara.

Bukatzeko, zerbait gehiago esan nahi duzu?

Bai, mezu integratzaile bat zabaldu nahi dut. Batetik, bidaidetik gabeko adingabeei hau esan nahiko nieke: pertsona zintzoa izan behar duzu, ikasi, integratu eta errespetatu. Bestetik, hemen bizi den jendeari hau adierazi nahi diot: kanpotik etortzen garen guztiok ez gara berdinak: batzuk lapurrak dira, bai, baina beste batzuk, ez. Beraz, edozein pertsona epaitu baino lehen, hura ezagutu behar da.

Amaiera alaia duen pelikula

Hamid Ben Daoud (Maroko, 1996) gaztea izan arren, bere bizitza pelikula bat egiteko modukoa da. Bere esanetan, haurtzaroa Marokon ez zen batere "erraza" izan. "Familiak ez zuen baliabide handirik, ezta nire ikasketak ordaintzeko ere. Beraz, udan iparraldera joaten nintzen, Nador hirira, lan egitera. Eta hor hasi zen Bilbora etortzeko plana". Nador Melillatik gertu dago eta bertako gazteak askotan saiatzen dira Espainian sartzen. Lagun batzuek erakutsi zioten Hamidi zelan egin, nolako trikimailuak erabili... Normalean autobusen azpian izkututzen dira; bestela, igeri egiten dute itsasontzi batean sartzeko.

Hamid erremolke baten azpian sartuta bidaiatu zen Marokotik Algecirasera, 2010ean. Eta handik, autobusez, Bilbora. "Argi nuen Bilbora etorriko nintzela, hemen euskal erakundeek etorkinei erraztasunak ematen zizkiela entzunda nuelako". Hona baldintza negargarrietan heldu zen: diru barik, gaztelania jakin barik eta adingabetua izanda. "Gogorra izan zen, jakina, baina aurrera jarraitu behar duzu, ez dago atzerapausorik. Hizkuntza ikasi behar da, gogor egin behar da lan bizimodua ateratzeko. Bizitzak oztupoak jartzen dizkizu eta horiek gainditu behar dira, arrakasta lortzeko. Eta oztopoei esker ikasi behar da, arazoei indartsuago egiten dizute".

Beheko argazki batean, Hamid, krossean; eskuinaldean, errekorra lortu zuenean (zapatetan "RE" dago irakurgai); behean, Basque Team erakundeko irudiak; beste orrialdean, Hamid, Hassan Reddad entrenatzailearekin, Lezaman



Hona etorri bezain pronto, poliziara joan zen eta prozesua martxan jarri zen: bidaiderik gabeko adingabeentzako egoitza sartu zuten Zornotzan. Beranduago, jokabide ona izan zuenez, Loiu Zabalotzeko zentrora joan zen. "Oso ondo tratatu ninduten bertan: kideak oso

jatorrak izan ziren, baita zuzendaria ere. Horrek izugarri lagundu digu, aita izango baltitz moduan maite dugu".

Handik etxebizitza batera sartu zuten, Leioan, Bizkaiko Foru Aldundiko babespean, beste gazte batzuekin. Eta han arazoak izan zituenean, Hassan Reddad

Zabalotzeko entrenatzaileak hartu zuen bere etxean, Derion. Gero, Basque Team erakundearen sartu zen -goi-mailako kirolariei bekak ematen dizkiena-, eta horiek Faduran duten egoitza bizi izan zen. Hori berritzen dabilta eta beste kirolari batzuekin batera, Hamid eta entrenatzailea Lezaman dute ostatu, Athleticeko egoitza, alegia. Urtebete emango du bertan.

Familia

Gaur egun, harremanetan dago Marokoko familiarekin. "2020an, anaia nagusia patera batean hiltzeko zorian egon zen, eta gaur egun Bartzelonan bizi da. Besteak Marokon bizi dira. Hona ekarri nahi ditut, familia niregandik gertu ibiltzeak energia ematen didalako". Hamidena kirolaren bidezko gizarteratzeari buruzko istorio ederra da. Eta nork bere beldurrak eta mugak zelan gainditu ere islatzen du. Momentuz, bere pelikulak amaiera alaia dauka.



Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKALTEGIETAKO IKASLEENTZAKO DEIALDIA 2022



EBALUAZIOA EUSKALTEGIETAN

A1 A2

DEIALDI IREKIA




Informazio gehiago:
HABE.euskadi.eus

Ursula Tomas (Sondika)



Ursula Tomas (Sondika)



Esti Odriozola (Larrabetzu)



Maddalen Eiguren, Larrabetzu



Iker Zarate, Larrabetzu



Presumida Bravo, Sondika



TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



"Ilunabarra basamortuan zoragarria da"

IÑIGO ORDEÑANA | Saudi Arabiara joan zen Athletic zuzenean ikustera

Eztabaida zabaldu zen Estatuan, futboleko Superkopa Saudi Arabian jokatu zela jakin zenean. Izan ere, horregatik, zaletuengandik urrun egongo zirelako partaideak: Bartzelona, Real Madrid, Atletico Madrid eta Athletic Club. Hala ere, Iñigo Ordeñana larrabetzuarrari ez zitzaion 6.000 kilometro egitea ardura izan, talde zuri-gorria zuzenean ikusteko. Eta bide batez, turismoa egiteko aukera izan zuen.

t: Gaizka Eguzkitza / a: I. O.

Zelan bururatu zitzaizun Arabiara joatea?

Mikel Bilboko laguna eta biok joan ginen. Karreran ezagutu genuen elkar eta normalean urterik behin joaten gara Athletic Bilbotik kanpo zuzenean ikustera. Azkena aurreko Kopako finalerdian, 2020ko martxoan, izan zen: Granadara joan ginen. Partida galdu genuen, baina finalerako txartela lortu genuen. Orduan, pentsatu genuen beste bidaia bat egin behar genuela Athleticen atzean; eta atzerrira joatea zoragarria izango litzatekeela, bioi bidaiatzea gustatzen zaigulako. Pandemiak dena gelditu zuen, baina 2021eko irailean ematen zuen bukatzeaz zegoela. Eta Arabiara joateko bidaia antolatuta genuen.

*"Londresen ingelesa
ikasten nembilela,
Arabiako lagun bat
ezagutu nuen eta berak
erakutsi zigun Riad"*

Irailetik hona, aldaketak egon dira bidaian, ezta?

Bai. Hasiera batean, partidak Yeda hirian jokatu behar ziren, baina Superkopa egin baino 15 egun lehenago, antolatzaileek egoitza aldatzea erabaki zuten eta partidak Riadera eraman zituzten, Yedatik 1.000 kilometrora. Beraz, dena

aldatu behar izan genuen: hegaldia, hotela... Baita plangintza ere: esate baterako, urpekaritza egiteko asmoa genuen Itsaso Gorrian, Yedatik gertu, baina azkenean ekimena bertan behera utzi behar izan genuen. Oso estresagarria izan zen dena, herrira sartzea ere erraza ez delako: bisa eskatu behar da, Arabiako erroldan izena behar duzu, PCR negatiboa eman behar duzu....

Azkenean dena ondo atera zen, ezta?

Bai, dena aldatu ahal izan genuen. Gainera, Riaden lagun bat daukat, eta berarekin batera egin dugu bidaia. Nik Londresen ezagutu nuen aspaldian, ingelesa ikasten genbiltzala. Luxua izan da Arabiako mutil batekin Riad ezagutu ahal izatea.



*"Arraroa da: Saud
Arabiako jendea
oso hurbila da eta
bertako gobernu,
aldiz, oso itxia"*

Etsituta, Athleticek galdu zuelako?

Tira, bai. Ez dut esango gutxienezkoa dela, Athleticetik irabazi izan balu, horrek amaiera bikaina emango ziokeen bidaiari, baina ondo pasatu dugu: basamortua ezagutu dugu, primeran egon gara, ez dugu COVID-19a harrapatu, bidaia luzea izan arren –Riad-Doha-Madril-Bilbo–, lotan eman genuen eta gustura egin genuen.

Eta Arabia, zelangoa da?

Arabiako lagunak herriaren berri eman zigun: Saudi Arabiak 90 urte ditu. Familia batzuek herria eratu zuten, petrolioak ateratzen hasi zenean. Oso zorrotza da islam erlijioarekin, eta nahiko itxia. Era berean, guztiok dakigu nolako jarrera adierazten dieten emakumezkoei. Eta zaila da bisita lortzea, hara turistatzat joateko. Hala ere, barruan zaudenean erabat desberdina da, jendea oso hurbila delako. Izugarritzko ongietorria egiten dizute eta beti laguntzeko prest agertzen dira. Guk arazotxoak izan genuen basamortuan eta hango lagunek lagundu ziguten eta tea hartzera gonbidatu gintuzten. Gainera, kulturalki guztiz desberdinak dira: ez dago ez alkoholik, ez txerririk; janaria lur-rean eta eskuz hartzen dute; gamelua jaten dute...

Zer da gehien gustatu zitzaizuna?

Bereziki basamortua gustatu zitzaiz-
dan. Txangoa egin genuen hara mo-
torrez ilunabarra bertatik ikusteko, eta
zoragarria izan zen. Gainera, jendearen
jarrera eskuzabala ere azpimarratu behar
dut. Arraroa da, jendea oso hurbila delako
eta gobernuia, aldz, oso itxia.



Kandelak eta ukenduak egiten ikasiko dituzte berbalagunek

Gabonetako oporralditxoaren ostean, euskaraz bizitzen jarraitzeko gogotsu etorri dira berbalagunak. Urtarrilean, esaterako, Lezamako trenbide zaharraren bideari jarraituta joan ziren Olatik Bilboraino, eta, bestalde, kandelak eta ukenduak egiten ikasteko saioa antolatu dute otsailerako. Gainera, zabalik dago egitasmoan parte hartzeko izena ematea, berbalagunen sarean ehuntzen jarraitzeko.



Berbalaguna euskaraz bizitzeko eta euskara erabiltzeko aukera paregabea da. Parte-hartzaileak astero ordu batean-edo batzen dira mintzapraktika egiteko, eta era berean, ekimenak euskaraz egiteko guneak eta uneak sortzen dira. Adibidez, hainbat ikastaro eta kulturari lotutako jarduerak egiten dira ikasturtean zehar eta mendi-taldea sortu da. Taldekideek Bizkaiko Bira egin dute eta orain itsas aldean ipini dute arreta, Bizkaiko bazter zoragarriez gozatzen segitzeko.

Berbalagun-taldeak osatzen dituzte euskaraz aritzeko ohitura eta trebetasuna lortu nahi dutenek eta euskara egunero erabiltzen dutenek. Helburuak dira euskaraz hitz egitearen beldurrari aurre egitea, ahaztutakoa gogoratzea, euskar-maila hobetzea edo, besterik ez, euskaraz bizitzea.

Hurrengo ikastaroa

Kandelak eta ukenduak egiten ikasteko saioa otsailaren 20an egingo dute. "Naturan ere erantzuna dugu askotan eta betidanik hainbat landare erabili dira gaitzak osatzeko. Landare horiek onak ziren lehen eta onak izaten jarraitzen dute; beraz, pentsatzen dugu aproposa dela haiei buruz zerbait gehiago jakitea eta zentzu horretan apur bat autosufizienteagoak izatea, kimika beti ez erabiltzeko", azaldu dute antolatzaileek.

Ikastaroa Baserri Antzokiko txokoan egingo da, 09:30ean, eta Cristina Goirizelaiak gidatuko du. Goirizelaia Fruizeko baserritarra da eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu inguruko belarrak. Era berean, eskarmentu handia du ukendu eta kandela naturalak egiten. Horiek no-

la egin irakatsiko die ikastaroan parte hartzen dutenei. "Nahiko erraza eta polita da kandelak egitea. Kandelak edo argizariak Euskal Herrian egin ohi izan diren moduan egingo ditugu: argizari naturala erabilia, usaintsuak, parafinarik gabekoak. Gainera, bakarrik ura eta olioak erabilia kandela bat nola egin ere irakatsiko diet. Hori jakitea oso onuragarria da etxean bat-batean argindarra eten eginez gero".

Goirizelaiaren ustez, oso interesgarria da autozaintetan eta gure osasunaren autogestioan pausoak eginez joatea. "Horregatik, eta neguan gaudela kontuan hartuta, ukendu batzuk nola egin ikusiko dugu, adibidez, ezpainerako, izan ere, ohikoa da hotza dela-eta ezpaineran zauritxoak eta erroitzak izatea. Neguan ere ohikoa da hotzeria edo gripea harrapatzea eta lurrinak nola egin ikasiko dugu, oso lagungarriak direlako mukiak-eta kentzeko. Sudurraz ahazten gara normalean, baina oso inportantea da hura jarraitasunez garbitzea, batez ere neguan. Sudurra gutxienez astean hirutan-edo garbitu beharko genuke, baikoitzaren aukeren arabera".

Teoria eta praktika

Sudurraz ez ezik oinekin ere ahazten gara normalean. "Oinek tratamendu be-

*Goirizelaiaren ustez,
oso interesgarria
da osasunaren
autogestioan pausoak
eginez joatea*

rezia behar dute, gorputzaren pisu osoa jasaten dutelako. Beraz, gomendagarria da astean behin edo birritan ukendua erabilita hankak eta oinak igurztea. Horretarako aproposa den ukendua egiten ikasiko dugu ilena eta epaibelarra erabilita. Ukendu hori hanturen kontrakoa da, odol-zirkulaziorako ona, eta aproposa egun osoa zutunik eman badugu. Ukenduak egiteko, olioak ere erabiltzen ditut; eta olioak egiteko, udan batutako belarrak. Beharbada, ahal dela, uda aldera beste ikastarotxo bat egitea proposatu liteke, belarrak batzera joan, eta olioak egiten ikasi”.

Esandako ukendua kolpeetarako ere onuragarria da, erreduretarako eta esku sikutasuna tratatzeko ere bai. “Ezpainetarako ukendua osagai berberak erabilita egiten da, baina hauek ere gehitzen dira: kakao-koipea eta karite-koipea, oso hidratatzaileak direlako; izpiliku-olioa, zauritxoak eta arraildurak orbaintzen laguntzen duelako; eta menda, lasaigarria delako”.

Baserritarrak esan duenez, produktuak egiteko behar den prozesua eta den-

*“Euskara biziko da,
euskal kultura bizi bada.
Ukenduak, kandelak...
nola egin euskal
kulturaren parte dira”*

bora kontuan hartuta, kandelak egingo dituzte ikastaroan bertan, eta ukenduei buruzko azalpen teorikoa emango du, eta prozesuaren azken pausoa erakutsi, gero, nahi izanez gero, nork bere etxean egiteko. “Gainera, denborarik badago, eztula arintzeko xarabea nola egiten den azaltzea ere pentsatuta dut. Oso erraza da egiten, plantaina eta azukrea erabilita”.

Ikastaroaren beste helburu bat da, jakina, euskara lantzea eta euskaraz bizitzea. “Euskara biziko da, euskal kultura bizi bada. Ukenduak, kandelak... nola egin ere euskal kulturaren parte dira, eta jakinduria. Beraz, oso aproposa da haiek baliatuta euskara lantzea”.



**berba
lagun**

telefonoa:
63575 35 95
e-maila:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

LAN-ESKAINNTZA

TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOAK BEHAR DU

KOMERTZIALA

ESKATZEN DA:

- Euskara jakitea
- Autoa izatea

KONTUAN HARTUKO DA:

- Komertzial-lanetan eskarmentua izatea
- Interneten jakintza: gizarte-sareak, webgintza...

Curriculumak aurkezteko epea:
Otsailaren 28ra arte

Nora bidali:
aikortxori@aikor.com



a: Oier Beldarrain

Ibilbidearen xehetasunak –esaterako, ordutegiak– eta ekimenaren unean-une-ko egoera kontsultatu ahal izango da gailu adimendunetarako KORRIKA aplikazioaren bidez. Programak hainbat berrikuntza dakartza aurten, bilatzaile hobetua eta estaldura arazoak ekiditeko sistema berria, kasu. Aplikazioa eskuragarri dago Android eta IOS sistema eragileen dendetan, eta ibilbide osoa herrika eta eskualdeka ere badago ikusgai www.korrika.eus webgunean. KORRIKA apirilaren 6an ailegatuko da Txorierrira. Larrabetzutik sartuko da 16:40an eta Lezama (17:10), Zamudio (17:35), Derio (17:57), Loiu (18:21) eta Sondika (18:30) zeharkatuko ditu, Erandiora jotzeko.

KORRIKAren 22. edizioa “HitzEkin” lelopean egingo da aurten. “Hizkuntza hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntzaren komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktika-ra, jauzi egingo dutenak”. Bestalde, kilometroak erreserbatzeko aukera otsailaren 1ean zabalduko dela adierazi dute antolatzaileek. Horretarako, KORRIKA bulegoekin harremanetan ipini behar da

Olga Loroño Txepetxa AEK euskaltegiaren arduradunak esan digun moduan, Txorierriko herri-batzordeak martxan hasi dira eta datozen asteetan jakinaraziko dira xehetasunak, hala nola KORRIKA gurean noiz aurkeztuko den eta zeintzuk izango diren bere inguruan antolatuko diren ekintzak. Bestalde, KORRIKA Laguntzailea kanpaina ipini da abian. AEKren euskaltegiei laguntzeaz gainera, laguntzaileek edizio honetako pina, txartela eta asteroko zozketa berezietan parte hartuko dute. Era berean, lehentasuna edota deskontuak izango dituzte KORRIKAren ekimenetan eta AEK-ko ikas-taroetan eta *Aizu!* aldizkariaren harpi-

KORRIKak apirilaren 6an

AEK-k ezagutarazi duenez, euskararen aldeko ekimen erraldoia martxoaren 31n irtengo da Amurriotik eta, hamaika egunez Euskal Herri osoa igaro ostean, Donostian amaituko da apirilaren 10ean. Txorierrira apirilaren 6an zeharkatuko du: aurreikuspenaren arabera, 16:40an Larrabetzutik sartuko da eta handik Loiurantz abiatuko da.



detzan. Laguntzaile izateko, Txepetxa euskaltegira hurbildu daiteke, edo www.korrika.eus webgunearen bidez egin.

Ibilbide orokorrari dagokionez, ohikoa den moduan, aurreko KORRIKA amaitu zen herrialde berean hasiko da aurtengoa, Araban hain zuzen. Mezu sekretua daraman lekukoa martxoaren 31n, 16:30ean, aterako da Amurriotik. Lehenengo arratsalde-iluntze horretan Aiaran eta Enkarterrian zehar ibiliko da, eta apirilaren 1ean sartuko da Hego Uribera, Arrankudiagan barrena hain zuzen. Apirilaren 1eko gaua Bizkaian emango du KORRIKak, Hego Urriben bertan eta Durangaldean. Gipuzkoara Eibarretik

sartuko da, eta hortik Debagoienara abiatuko da (Bergara, Arrasate, Leintz-Gatzaga), eta berriro Arabara, Legutian barrena, hiriburua zeharkatzeko, Gasteiz.

KORRIKak Lautadan emango ditu apirilaren 1eko azken orduak, Eginetik

*KORRIKA Laguntzailea
kanpaina ipini da abian;
bertan parte hartzeko,
Txepetxa euskaltegira
hurbildu daiteke*

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Txorierrirako*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

zeharkatuko du Txorierri



Helmuga: Donostia

Apirilaren 5eko lehenengo orduak Zuberoan emango ditu lekukoak. Nafarroa Beherera bueltatu, eta Baigorritik Erratzurako bidetik Nafarroa Garaiko hurrengo etapa egiteko. Baztanetik, Ultzamatik, Larraunetik, berriro Sakanatik eta Lizarraldetik pasatuko da KORRIKA. Apirilaren 6arekin batera helduko zaigu Arabako hurrengo etapa. Mugatik Kanpezurako bidean barrena eta Mendialdean ibiliko da lekukoa eskuz esku. Handik Trebiñura, Añanara eta Gorbeialdera, Arratitik Bizkaira berriro sartzeko. Hurrengo egun biak gure lurraldean emango ditu KORRIKAK: Arratitik Usansolora eta Txorierritik Bilbora. Korrikalariak apirilaren 7ko ordu txikietan ibiliko dira Ezkerraldeetik eta Meatzaldetik. Goizaldea Uribe Kostan pasatuko dute eta, Uribe Butroetik, Busturialdeatik eta Lea-Artibaitik igaro ostean, eguna Mutrikun amaituko dute.

Apirilaren 8an Gipuzkoan ibiliko da euskararen aldeko lasterketa, eta zapatuan Nafarroako azken etapari ekingo zaio. Lapurdira Ibardinen barrena sartuko da lekukoa eta 17:30ean Baionara helduko da. Euskal Herriko herrialde guztiak ukituta, KORRIKAren azken txanpa izango da apirilaren 10ean. Hegoaldera joko du lehenik eta Gipuzkoara berriro sartuko da Irundik. Bidasoa atzean utzita, Oarsoaldea eta Hernanialdea zeharkatuko du, Añorgatik 07:30ean Donostiara sartzeko. Mezua 12:30ean irakurriko da Boulevardean.

Ziordirako bidetik Sakanan sartzeko. As-teburu osoan Nafarroan ibiliko da tipitapa, Sakanatik Iruñerriara eta Iruñetik Elortzibarrera. Hortik Izarbeibarrera, Tafallaldera eta, domeka amaitzeko, Erriberara. Zangozaldean apirilaren 3ko az-

ken orduak eman ondoren, Pirinioetatik igaroko da lasterketa erraldoia, arratsaldean Donibane-Garazari eta iluntzean Maulera ailegatzeko. KORRIKAK ibilbide erdia eginda izango du ordu-rako.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami suzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 18:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO
TEL. 94 424 38 34

Gabon solidarioak



t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Derion pasatu ditugun lehen Gabonetan jarduera komunitarioa eta solidarioa egin dugu: jostailuak batu eta banatzea. Helburua izan da herritarrek egoera onean zeuden jostailuak ematea, hala eskatu zuten lagunen eta laguntza humanitarioko elkarten artean banatzeko. Egitasmoa aurrera eramateko, kontaktuan ipini ginen Alazne Prietorekin. Gazte derioztarrak aurreko urteetan ere jostailuak batzeko kanpaina antolatu zuen udala-

rekin batera, eta oraingo honetan hirurok elkarlanean ibili gara egitasmoari helteko.

Jostailuak azaroaren 29tik abenduaren 12ra arte jaso genituen Kultur Birikan. Bertara derioztarrak ez ezik inguruko herrietako biztanleak ere hurbildu ziren eta hainbat adin-tartetako umeentzako jostailuak ekarri zizkiguten. Gure lana jostailuak desinfektatzea eta sailkatzea izan zen. Zabalkunde handia eman zitzaion lehenengo fase honi, eta, hortaz, dozenaka herritarrek eta Txorierriko Institutuko or-

dezkariek ere ekarri zizkiguten ehunka jostailu. Izatez, hain jostailu-kopuru handia jaso genuen, ezen Kultur Birikan uste baino leku handiagoa hartu behar izan baikenuen.

Ondoren, bigarren faseari ekin genion. Jostailuak Kultur Birikan banatu genituen abenduaren 12tik 22ra bitartean. Derioko eta Bilboko familia batzuk etorri ziren jostailu bila, baita Afrikara laguntza bidaltzen duten elkarte batzuk ere. Alde batetik, Hamadako Izarrak elkartearekin izan ginen harremanetan. Elkarte horretako kideek Saharako umeekin egiten dute lan eta jostailu asko eraman zituzten Aljeriako kanpamendu sahararretara bidaltzeko. Beste aldetik, Novisi elkarteak industria-furgoneta bat bete zuen jostailuz, bizikletaz, baloiz eta umetxoak eramateko orgaz, Togora bidaltzeko. Azkenik, Zamudioko bizilagun batek hainbat jostailuz betetako paketea eraman zuen, bere jaioterrira, Togora bidaltzeko.

Aipatutako guztiak oso eskertuta azaldu ziren Alazne Prietok, Derioko Udalak eta Emanus Gizarte Fundazioak elkarlanean egin dugun egitasmoagatik. Esan beharra dago PAI Bitarteko eguneko egoitzan egunero gabiltzanontzat ere oso ekintza interesgarria eta aberasgarria izan dela, harreman zuzena izan dugulako Kultur Birikara jostailuak ekartzera zein hartzera etorri diren pertsona guztiekin. Era berean, Gabonak oso garai berezia direla kontuan hartuta, poz-pozik utzi gaitu herritarrek egitasmoari nola erantzun dioten ikusteak.

Esanak esan, PAI Bitartean programaren kideok eskerrak eman nahi dizkiegu ekimenean parte hartu duten guztiei. Amaitzeko, gogora ekarri nahi dugu datorren Gabonetan ere ekintza antolatuko dugula: espero dugu askoz jostailu gehiago batzea, inguruko zein beste herri batzuetako jende gehiagorengana ailegatu ahal izateko.

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zehaztu BEHARRAK
Logopedia
Podologia
Krimasajak

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txorierri etorbidea, 9 - Lorja | Antsaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

**sarraila-denda
Txorierri**
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASNEAN

948 038 663
625 100 800
info@sarrajeriatxorierri.com
www.sarrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Unkiola, 4 lorja
48160 Derio



t: Txiribita / a: www.squarespace.com

Rosmarinus officinalis. Formagatik eta usainagatik, oso erraza da landare hau identifikatzea. Mediterraneokoa den arren, oso ondo egokitzen da gure lurrera, leku egokian landatuz gero. Hostoak eta landareak biltzen dira. Helburu sendagarrietarako erabili nahi baditugu, loraketaren ondoren batu behar ditugu hostoak eta kimu samurrak.

Sukaldean

Erromeroaren hostoak espeziatzat erabili daitezke okela, arraina, saltsak eta gozagarriak ontzeko. Ozpina, olioia eta ardoa egiteko ere erabil daiteke erromeroa.

Ezaugarri sendagarriak

Erromeroa ona da memoriarako eta lagungarria da eztula eta arnasketa-

gaixotasunak arintzeko. Kolikoak ere arintzen ditu, eta heste-haizeak ere.

Errezetak:

–Infusioa: katilukada bat ur ipiniko dugu berotzen eta irakiten hasten denean sua amaitu eta koilarakada txiki bat erromero-hostoak eta -loreak gehituko ditugu. Jalkitzen utziko dugu 10 minutuan. Errezeta baliagarria da hurrengo gaitz hauetarako: digestio-arazoak eta arnasketa-arazoak (eztula arintzen du, asma, gripea eta arnas alergiak), giharretako mina eta neuralgiak. Era berean, organismoa eta odol-zirkulazioa bizkortzen ditu.

–Odol-zirkulazioa hobetzeko bainua: oso erromero-infusio kontzentratua prestatuko dugu. Azpil batean nahasiko ditugu infusioa, ur beroa eta gatza. Oinak

Erromeroa

eta hankak sartuko ditugu, eta minutu batzuetan atsedena hartu.

Ezaugarri kosmetikoak

Produktu kosmetikoak egiteko erabiltzen da, larruazala gazteago egiten duela; odol-zirkulazioa hobetzen du eta ekzemak arintzen ditu.

Errezetak:

–Erromero-alkohola: 90 graduko alkohol litro batean

250 g erromero-hosto fresko beratuko ditugu bederatzi egunean. Alkohola iragazi eta gorde egingo dugu. Minduta dugun gorputz-ataletan igurtziak egiteko erabili dezakegu (erreuma, zaintiratuak, odol-zirkulazioa hobetzeko...).

–Erromero-lozioa: alkohola erabilita larruazalerako lozio antiseptikoa egin dezakegu, baita ilea ez erortzeko lozioa ere. Horretarako, nahasiko ditugu 200 ml erromero-alkohola, koilarakada bat glizerina begetala eta 150 ml ur destilatua.

–Erromero-infusio kontzentratua irakuzketa moduan erabiltzen da (azken urberitzea), ilea haztea estimulatzeko.

Ortuan

Bizitza luzeko zuhaixka da eta bi metrora arte hazi daiteke. Erreza da erromeroa landatzea, aldaxkak, erroak edo haziak erabilita. Hondar-lurra gustatzen zaio, drainatze ona duena eta eguzkitsua dena. Lorontzietan ere landatu daiteke.

Lagungarria da ortuan, ohiko izurriak eta intsektu kaltegarriak uxatzen dituelako eta intsektu onuragarriak erakartzen dituelako. Bizitza luzekoa denez, leku estrategikoan landatu behar da ortuan, adibidez, bazterretan eta izkinetan.

Kontraindikazioak

Erromeroak tentsioa igotzen du; hortaz, kontuz ibili behar dugu, eta gehiegi ez hartu tentsio arteriala altu badugu. Hurrengo hauek ere ibili beharko dute kontuz: haurdun daudenek, titia ematen dabilzanek, sei urtetik beherako umeek eta gastritis edo behazun-gaixotasuna dutenek.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagu-tzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasa-tzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...


Wordle eta Berbaxerka, hiztegia lantzeko jokoak

BERBAXERKA


Ezabatu Saria (hitza)

 0/108 hitz aurkitu duzu:
Puntuazioa: 0/517.

WORDLE (EUS)



Jokuek gero eta erabiltzaile gehiago dute. Batzuen esanetan, "adikzioa" sortzen dute

telebistan, eta Andaluziako Canal Sur kateak iaz sartu zuen berriro bere programazioan.

Bestalde, Berbaxerka jolasak mekanika antzekoa du. Zazpi letra azaltzen dira egunero zazpi hexagonok osatutako abaraska batean. Erdiko letra nabarmenduta dago, derrigorrez erabili behar delako hitzak osatzeko; ahalik eta hitz gehien topatu behar dira, hizkiak errepikatu daitezkeela. Euskaltzaindiaren hiztegian jasotako hitzak baino ez dira onartzen. Hitza zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta puntu gehiago eskuratzen dira.

Webaren bidez jolasten da, baina mugikorrerako ere dago egokituta. Jolasa Estatu Batuetan sortu zuten eta, katalanezko bertsioa (Paralogic) agertu ondoren, orain dela gutxi atera dute euskarazko bertsioa. Asturierazko bertsioa ere kaleratu berri da. Adikzioa sortzeaz gainera, batzuen ustez, Wordle eta Berbaxerka 2022ko fenomeno birala dira. Horrela, bada, jolasak ahoz aho dabilta gizarte-sareetan eta Interneten, eta gero eta erabiltzaile gehiago animatzen dira jolasetan saiatzera, eta topatutako hitzak Twitterren jakinarazten dituzte.

Azken asteotan boladan jarri dira onlineko joko bi: Wordle eta Berbaxerka. Oso joko sinpleak dira eta biek dute helburu bera: hizkiak erabili hitzak osatzeko. Egunero, gero eta erabiltzaile gehiagok egiten diote hitzak asmatzeko erronkari aurre. Batzuen esanetan, "adikzioa" sortzen dute.

Wordle jokoa bertsio hauetan topatu daiteke: euskaraz, ingelesez, katalanez, gaztelaniaz, galizieraz, frantsesez eta galesez. Jolasteko modua oso erraza da. Egunero bost letrako hitzen bat as-

matu behar da eta sei saiakera daude horretarako. Laukietan edozein hitz idatzi daiteke hasteko: letra berdez agertzen bada, horrek adierazi nahi du bere tokian dagoela; horiz agertuz gero, hizkia dagoela, baina beste lekuren batean; eta grisez agertzen bada, ez dagoela. Egunero dago erronka berria.

Aspaldi honetan modan ipini arren, esan beharra dago jolasa telebistako saio batean dagoela oinarrituta: Lingo. Jolasa 90eko hamarkadan eman zuten

Ursula
psikologoa
Psikologia & Neuropsikologia

644 649 752 ursula@cop.es
Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)
48930 Areeta (Getxo)

ZAMUDION BERTAN GAUDE

BAIRES
Higienizazioa eta ingurumen-garbiketa

Alberto Gainza:
691606715
contacto@baires.es
www.baires.es

Mendiak salgai Txorierrin: basoko metro bat euro erdian

t: Juan Luis Goikoetxea

Euskal Herrian leihotik begiratzen baduzu –parajeen edo asagoan– mendia ikusiko duzu. Bertara erraz helduko zara, pandemiako klaustrofobia kentzeko sendikoak eta txakurra taldean elkarturik. Seguru asko, berehala konturatuko zara zein ederra den baso hori; zein polito geratu den selfia; zein erraz kendu zaizun hiriko estresa. Ondo-ondotik pasatuko zaizkizu kirolari amorratuak ere, kronoa eskuan dela, bakoitza bere buruaz lehian, marka berria ezarri guran, gainerako mendizaleei agur egiteko asti barik.

Autoak ere topatuko dituzu bidezidorren aldamenean; baita kontainer itxura duten sasiarteak, edo gurutzatzen dituzun txakur askeak ere. Sendikoen artean eztabaida ere sor dakizueke, batzuek uste duzuelako mendi-kirolaren garaiari dagokiola aipatu dugun giro hori, aisialdiaren zibilizazioari, indibidualismoaren izaerari. Beste batzuek, aldiz, gurago lukete mendia zerbait baino norbait izatea, ze mendiak izena du –Berreaga edo Gaztelumendi–; mendiak zauriak ditu, 1936ko gudatean eginak; oraindik sendatu gabeak. Hau da, mendi bakoitzak bere historia du. Ezagutzen ote dugu, irakurle?

Pinudian gero eta barrurago sartu zaretenean, isiltasuna nagusituko da, txorien kantak entzungo dituzue, eta itaunduko diozue elkarri: zein txorirena da txirri-txio hori? Baliteke zuetariko norbaitentzat ezaguna gertatzea. Zoritxarrez, askotan ezezagunak izango dira, asfaltoko erreinuan horietako hegaztirik gehienak ezin topatu dira-eta.



Kontua da, mendia bere hutsean betea dela. Bertan bizi da Mari Anbotoko, euskal mitologiako jainkosa nagusia, baita Basajauna ere; gainera, "Olentzero joan zaigu mendira lanera..." abesten dugu. Hortaz, mendia ez dago hutsik; eta ez da gizakiona bakarrik.

Aldapaz gora joanik, halako batean, gailurrera iritsiko zarete. Tontor askotan gurutzea aurkituko duzue. Esate baterako, Gorbeia gurutze ezaguna, 17 metroko altuera duena, 1907an bertan ipinia. Gorbeia gainera edo Bizkargitik begiratzean, panorama –berba grekoa, hots, euskarazkoa–

ikusgarria ezagutuko duzue harainoko ibilaldia izerditan egin duzuenok. Han bai asaskatzen garela gorputzez eta espirituz. Johannes Bordaazarrek Baionako Herria euskal astekarian dakarrenez, "Mendian zaio bakardadea unibertsaltasunari lotzen".

Azken batean, irakurle, mendia etekina ateratzeko lekua soilik ez denez, zergatik ez eskatu udalari hiru urrats ematea. Lehena, 0,50 euroko basoak erostea; bigarrena herri-baso izendatzea, eta hirugarrena gure ondareko gaztainondoak landatzea. Ekologiaren alde, eta erdi debalde.



Fideo-zopa txirlekin



a: www.antena3.com

Osagaiak (lau pertsonentzat):

- 250 g fideo
- 600 g txirla
- 2 baratxuri-atal
- 400 g tomate birrindua
- 750 ml arrain-salda
- Koilarakada txiki bat piperrauts gozoa
- Perrexil apur bat
- Gatza eta piperbeltza
- Oliba-olioa

Prestatzeko era:

Olio-zurrusta botako dugu kazola batera eta su ertainean ipiniko dugu. Olio bero dagoenean, kipula eta ba-

ratxuria gehituko ditugu, txiki-txikituta. Gatza eta piperra bota, eta 10 minutuan utziko dugu egiten, maiz eraginez. Ondoren, tomate birrindua gehituko dugu, gatza eta piperra bota, eta eragingo dugu gainerako osagaiekin nahasi dadin. Sutan bost minutu gehiago izango dugu, eta noizean behin eragin. Perrexilaz (ondo txikituta) eta piperrautsaz maneatu dugu eta minutu-pare batean egingo dugu. Salda bota, eta sua igoko dugu, irakiten hasten den arte. Fideoak gehituko ditugu, sua jaitsi, eta lauzpabost minutuan egingo ditugu. Txirlak bota, eta bizpahiru minutuan egingo ditugu, irekitzen diren arte. Beharrezkoa bada, gatza eta piperra botako ditugu.



Atun-, ahuakate- eta tomate-bilkariak

a: Tom Fisk (Pexels)

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 4 gari-tortilla
- 2 atun-lata
- Ahuakate bat
- Tomate bat
- 4 letxuga-hosto
- Maionesa

Prestatzeko era:

Ahuakatea eta tomatea dadoetan moztu, eta atunekin nahasiko ditugu. Maionesa gehituko dugu. Tortillak zabaldu eta haien gainean letxuga-hosto bana ipiniko dugu, eta horren gainean, nahaste apur bat. Tortillak bildu egingo ditugu.

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

hotela
jattetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserruko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, 2/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak
topatu irudi bien artean.
Bukatzen duzunean, irudiak
margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Larruazalaren periferiaz haraindi
(Katakarak), Silvia Federici.
Itzultzailea: Amaia Astobiza
Uriarte.
–Izurdeen aurreko bizitza (Susa),
Kirmen Uribe Urbietia.
–Izurritea (Zorrotz),
Onintza Enbeita Maguregi
–Kronikak: Jose Luis Alvarez
Enparantza "Txillardegi" (Susa),
Kordinatzailea: Koldo Izagirre
Urreaga eta Juan Luis Zabala
Artetxe.

LITERATURA: GAZTEAK

–Behisuzkoa (Erein), Inés Sáenz
de Pipaon. Ilustratzailea: Raquel
Samitier Castillón.
–Isilpean ere, kontu kontari
(Bellaterra), Núria Fortuny Herrero
eta Rebeca Millares.
–Bihurrikeriak Sabikan (Saure),
Gerardo Fabián Cosenza.

Sudokua

		5	9			8		1
	4			5			9	
							6	2
					4			
	1	9			8			
2								5
				1				3
6					3			
			4	9			1	6

9	1	2	7	6	4	3	5	8
6	5	4	3	8	2	1	7	9
3	8	7	5	1	9	2	6	4
5	7	1	6	9	3	4	8	2
4	2	9	8	7	5	6	1	3
8	3	6	4	2	1	7	9	5
2	9	5	1	4	7	8	3	6
7	6	3	2	5	8	9	4	1
1	4	8	9	3	6	5	2	7

ERREKA
JAT ETXEA ONDO

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jauntarteak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

**PELUCERIA
ESTETIKA**
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**Sondigarbi
GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

Azokak

Zamudio

- > Nekazamudio. Otsailaren 5ean, 10:00etan, Agirre Lehendakaria plazan.

Erakusketak

Sondika

- > Alberto Palomeraren marrazkiak. Otsailaren 1etik 25era, liburutegian.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Edorta Jimenezen *Nikole Bijotzekua* lana. Otsailaren 17an, Anguleri kultur etxean.



Ikuskizunak

Zamudio

- > Pelikula. Otsailaren 6an, 13an, 20an eta 27an, 18:00etan, Gaztestazioan.
- > *Go!azen 8.0*. Otsailaren 12an, 17:00etan eta 19:00etan, kiroldegian. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.
- > *No solo duelen los golpes* antzerki-bakarrizketa, Pamela Palencianoaren eskutik. Otsailaren 25ean, 19:00etan, kiroldegian.

Larrabetzu

- > Geuretik Sortuak: Oier Zuñigaren *Eresia* antzezlan. Otsailaren 20an.

Inauteriak

Loiu

- > Mozorro txapelketa. Otsailaren 26an, 18:00etan, Larrondoko frontoian.
- > Dj Xaibor. Otsailaren 26an, 18:30ean, Larrondoko frontoian.

Sondika

- > Mozorroren osagarriak eta paperezko maskarak. Otsailaren 9an eta 21ean,
- > Ludoteka Txikin (2014-15). Jirafa mozorroa. Otsailaren 17an, Ludoteka Txikin (2016-18).
- > Inauterietako ekintzak. Otsailaren 22an eta 24an, Ludoteka Gaztean (2011-13).
- > Inauterietako ekintzak. Otsailaren 23an eta 25ean, Ludoteka Gaztean (2009-11).

Zamudio

- > Mozorro Jaia. Otsailaren 25ean, 19:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: otsailaren 24a.
- > Mozorro tailerra. Otsailaren 26an, 11:30ean, liburutegian.
- > Ogi txigortua. Otsailaren 27an, 19:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: otsailaren 26a.

Larrabetzu

- > Erromeria (Maskarita Eguna). Otsailaren 25ean, Hori Bai gaztetxean.

Kirola

Zamudio

- > Zamudioko Krosa. Otsailaren 13an, 10:40tik aurrera, Bidekoetxe parkean. Beste Bira Loiu antolatua.

Musika

Larrabetzu

- > Errebaleko Hintxen Jaialdia, Hori Bai gaztetxean: Iheskide + Galazota + Dj KoldoLC. Otsailaren 5ean.
- > Lukiek + Sad. Otsailaren 11n.
- > Domekak, Hori Bai gaztetxean: 2 zaldi. Otsailaren 13an.
- > Zeker + Unidad Alavesa. Otsailaren 19an. Hori Bai gaztetxean.

Ospakizunak

Zamudio

- > Santa Ageda. Otsailaren 4an.

Tailerrak

Sondika

- > Mad Science. Otsailaren 11n eta 18an, 19:00etatik 20:00etara, Gaztetxean.
- > Identitate digitala. Otsailaren 25ean, 19:00etatik 20:30era, Gaztetxean.

Sondika

- > Harritzko imanak. Otsailaren 5ean, 19:30ean, Gaztestazioan.
- > "Eta zuk zelan ligatzen duzu?". Otsailaren 11n, 19:30ean, Gaztestazioan.
- > "Sare sozialak eta nortasun digitala". Otsailaren 18an, 19:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: otsailaren 16a.

Txapelketak

Sondika

- > Birus mahai-jokoa. Otsailaren 4an, 5ean eta 6an, Gaztetxean.

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak zentro bakar batean
—Aurrekontua doan
—Especialitatea: umeak

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Bizkargi Kafetegia
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Kaxolak

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

Txorierriko **BERBALAGUNAK**

11 aukera euskara praktikatzeko! Herrian - kalean- lagunekin - parkean - paseoan - kafetegian

euskaraz amets



INFORMAZIOA ETA IZEN - EMATEA: 635.75.35.95 edo txorierr.berbalaguna@gmail.com

LAGUNTZAILEAK:



"Txorierri Berbalaguna"
Txorierri Berbalaguna

ANTOLATZAILEA:



"Txorierri Berbalaguna"
Txorierri Berbalaguna

BABESLEA:

